

#54 / 2024 URRIA

artelka

**HARRESIAK,
AZALA ETA
MISERIA**

GEDAR

Jarrera arrazista bat hartzea da sistema kapitalistaren arazoari aurre ez egitea, klase-gatazka muga-politiken eta estatu-politiken bidez geldiarazten saiatzea, eta beti errudun beraren aurka jardutea, hau da, proletario immigrantearen aurka. Jarrera arrazista horrek ez du arazoaren erantzukizuna bere gain hartzen, kanpotik baitator arazo hori, eta, halaber, kontra egiten dio internazionalismo proletarioari, zeinak burgesiaren dominazioari eta horrek sortzen duen miseriari eraso nahi dien horiek iristen diren toki guztietan; senide proletario bat dagoen toki guztietan.

Edukia

6

10

22

24

38

52

EDITORIALA

Arteka

Bai, arrazakeria da

KOLABORAZIOA

Ainhoa Jugo

Kapitalismoa eta migrazioa

IRITZIA

Eli Irazu

**Klase batasunaren
apologia (bat)**

ERREPORTAIA

Jose Castillo

**“Lorategiaren” mugetan:
immigrazioaren
geopolitika Europan
eta Estatu Batuetan**

KOLABORAZIOA

Pablo C. Ruiz

**Etorkinaren mitoa
eta internazionalismo
proletarioa**

**HISTORIA
ERREPORTAJEA**

Marina Segovia

**Migrazioen bilakaera
historikoa**

Bai, arrazakeria da

Editoriala

Pertsona batzuk datuen atzean ezkutatzten dira beren ikuspegi propioetatik eratorritako ondorioak saihesteko. Gauzak horrela dira, eta ni informatzaile bat baino ez naiz, datuen tresna bat, haiek baitira benetako subiranoak.

Baina egia esateko, datuak ez daude hor besterik gabe. Errealitatearen sintesi oso espezifikoa dira, prozesatzen dituen subjektuaren ideologiak esku hartzen baitu haietan. Eta datu horiek bere horretan onartzeak honakoa esan nahi: datu horiek prozesatzea eta sortzea garrantzitsutzat jo duen jarrera politikoa onartzea.

Jar dezagun adibide bat. Egoera gatazkatsu bat gertatzen denean, lapurreta bat adibidez, hainbat modutan joka daiteke. Kontuan har daiteke zer lapurreta portzentaje egiten duten gizonen eta zer portzentaje emakumeek, zenbat garaiera jakin bateko pertsonen, zenbat lana duten pertsonen, familia duten pertsonen... Datuak hainbat kategoria interesgarriren arabera prozesatu daitezke. Hala ere, modu batera edo bestera egitea ez da hainbeste egintzaren beraren araberakoa, baizik eta hartaz egiten den interpretazioaren araberakoa.

Datuak ez dira ideologia jakin bat, mundua ikusteko modu bat, sortzen dutenak. Oso kontra-
ra, errealitatea modu estatistikoan, datu multzo
batean alegia, aurrez ezarritako ikuspegi batetik
soilik antolatu daiteke, gizabanakoaren egoera
errealari lotutako ikuspegi batetik; azken batean,
klase-ikuspegi batetik. Argi dago gizabanakoak ez
duela beti dagokion klase-posizioa hartzen; klase-
borroka zerikusia du klase-posizio bat hegemo-
niko bihurtzearekin, inposatzearekin. Nolanahi
ere, gizabanakoa eta bere egoera indibiduala edo-
zein izanda ere, klase-ikuspegi bat hartzen du beti,
errealitate sozialari eta gertakariei aurre egiteko
aukera ematen diona.

Horregatik, erratzeko beldurrik gabe baieztu
dezaugu: datuak jatorriaren arabera prozesatzea
eta gertakari jakin batzuk migrazioarekin lotzea,
kontuan harturik migrazio hori arrazarekin ere lo-
tzen dela –izan ere, migratzailea zentzu arrazistan
gutxietsitako herrialde batetik datorrena baino ez
da, eta hala ulertzen da–; modu horretan jokatzea,
bai, arrazakeria da, eta arrazista da horrela jokatzeko
duena. Are nabarmenagoa da egitate objektibo gisa
ematen den datuak ez dienean inolako argitasunik
ematen egitatei eurei, eta ez denean haiek azal-
tzeko gai.

Lapurretak, hilketak edo bestelako istiluak mo-
du orokorrean gertatuko balira eta estatistikaren
arabera masiboki migratzaileek sortuko balituzte
ere, ezin izango genituzke gertakariak azaldu mi-
grazioaren edo gertakari horiek egiten dituenaren
jatorriaren arabera. Eta hori horrela bada, datua
prozesatzeko erabili den kategoria ez bada gai egi-
tatea azaltzeko, hain zuzen ere, kategoria hori ez
da erabakigarria errealitatea ulertzeko, eta baztertu
egin daiteke, edo, gutxienez, egitateak antolatze-
ko kategoria-ordenan behertu.

Berriro diogu: gaitz sozial guztiak migratzaileei
lotuta daudela onartuko bagenu ere, migrazioaren
kategoria ez litzateke nahikoa gaitz horiek azaltze-
ko; gehienez ere, pertsona horiek geografikoki zer-
gatik mugitu diren azalduko luke –zergatik migratu
duten gaitzek–. Baina, kasu horretan, gure jarrera
arrazista litzateke argi eta garbi. Izan ere, gure in-
guruan gaitza ekiditea baldin bada kontua, lurralde
jakin batera mugatuta egon behar duela onartuz,
ordu horrek esan nahi du Mendebaldearen na-
gusitasuna onartu behar dela periferia osoaren eta
bertan bizi direnen gainetik. Herrialde pobreen-
tako proletarioen gaineko gaitza onartzea izango
litzateke, eta haien esplotazioa ontzat ematea.

***Datuak jatorriaren
arabera prozesatzea
eta gertakari jakin
batzuk migrazioarekin
lotzea, kontuan
harturik migrazio
hori arrazarekin ere
lotzen dela –izan ere,
migratzailea zentzu
arrazistan gutxietsitako
herrialde batetik
datorrena baino ez da,
eta hala ulertzen da–;
modu horretan jokatzea,
bai, arrazakeria da, eta
arrazista da horrela
jokatzeko duena***

Gainera, gatazka hori migrazioaren bidez azaltzen bada, eta aldi berean migrazio hori identifikatzen bada herrialde pobretu jakin batzuetako eta arrazari dagokionez gutxietsiak diren pertsonekin, zeinak behartuta baitaude lekualdatzera, orduan, arrazari berezkoa zaion zerbait bezala azaltzen da gatazka, eta horren konponbidea arrazista baino ezin da izan: mugak ixtea, immigrantea ehizatze-ko talde faxistak antolatzea, immigranteei eskubi-deak ukatzea... Azken batean, behe-mailako arraza bateko izaki gisa katalogatzea immigrantea, zeina kontrolpean eduki edo zuzenean garbitu behar den.

Jarrera horiek erraz ikus daitezke arku parlamentario burgeseko alderdi guzti-guztien proposamenetan. Batzuek argi eta garbi eskatzen dute; beste batzuek, diote arazoa ez dela immigrazioa, estatu independente baten falta baizik, baina, migratzaileei mugak ixteko horrekin, demostratzen dute immigrazioa dela beren benetako kezka. Erraz ondorioztatzen da nola aurre egin nahi dioten arazoari.

Hala ere, immigrazioaren arazotzat jotzen dutena ezin da bereizi pobrezia eta proletarizazioaren arazotik. Inolako ekarpenik egiten ez duen eufemismo bat erabiltzen bada (immigrazioa, adibidez), errealitatea ezkutatu nahi delako egiten da, hari aurre ez egiteko. Haientzat, kontua ez da klasetan banatutako gizartea deuseztatzea, zeinak pobrezia eta gatazka soziala sortzen baititu, baizik eta haren ondorioak arintzea, eta, bestela, pertsona horiek norberaren mugetatik urruntzea. Horretarako, kategoria erabilgarria da immigrazioa. Eta hala da, gertaeren logikari buelta ematen diolako. Lehenik datuak eskaintzen dizkigu, eta gero bere ondorio logikoa aurkezten digu: immigrazioa handitzen bada, gatazka soziala handitzen da. Hala ere, gertaerak oso desberdinak dira ikuspegi komunista batetik aztertzen badira, hau da, arrazista ez den ikuspegi batetik, eta nazioa eta nazionalismoa subjektu politiko gisa mugatzen dituen ikuspegi batetik kanpo.

***Gaitz sozial guztiak
migratzaileei
lotuta daudela
onartuko bagenu ere,
migrazioaren kategoria
ez litzateke nahikoa
gaitz horiek azaltzeko;
gehienez ere, pertsona
horiek geografikoki
zergatik mugitu diren
azalduko luke –zergatik
migratu duten gaitzek–.
Baina, kasu horretan,
gure jarrera arrazista
litzateke argi eta garbi***

Immigrazioa handitzen bada, gatazka soziala areagotzen delako da, eta gatazka soziala handitzen bada, klase-antagonismoa tentsio eutsiezineko mailetara igotzen delako da. Eta ez bakarrik migratzaileen jatorrizko herrialdean edo migratzaileengan eurengan. Mendebaldeko gizarteak, klase-gatazkari berezkoak zaizkion barne-tentsioen ondorioz, gero eta gaitasun txikiagoa du kontraesan horiek kudeatzeko; gero eta gehiago ari da urratzen, eta immigrazioan aurkitzen du motelgailua, bere lur-hartzea. Kontua ez da migratzaileek eragindako lapurretak eta gatazkek areagotu egin direla, beste behin ere, estatistika ofizialaren arabera. Kontua da Mendebaldeko gizarte kapitalistak klase-gatazkari eusteko gaitasuna galdu duela, eta, horregatik, adierazpen gatazkatsuak areagotu egiten direla, edo, handitzen ez badira, irauten dutenek arrakala handiagoak sortzen dituztela.

Immigrazioa handitzen bada, gatazka soziala areagotzen delako da, eta gatazka soziala handitzen bada, klase-antagonismoa tentsio eutsiezineko mailetara igotzen delako da. Eta ez bakarrik migratzaileen jatorrizko herrialdean edo migratzaileengan eurengan. Mendebaldeko gizarteak, klase-gatazkari berezkoak zaizkion barne-tentsioen ondorioz, gero eta gaitasun txikiagoa du kontraesan horiek kudeatzeko; gero eta gehiago ari da urratzen, eta immigrazioan aurkitzen du motelgailua, bere lur-hartzea

Polarizazioa handiagoa da, hazten ari den etsai berri baten aurkako –proletariotzaren aurkako– kausa komunak etsai hori immigrante gisa identifikatzean hartzen du gorputza, eta horrela proletariotza nazionalaren zati bat aktibatu nahi da, proletarizazio-prozesuan dagoen erdi-mailako klasearen mesederako. Baina, egia esan, proletariotzaren aurkako borroka bat da, immigrantearekin erlazionatzen dituzten ezaugarriak, izatez, desegiten ari den gizarte kapitalista baten barruan klase sozial zapaldu, esplotatu eta pobretu batek dituen ezaugarriak baitira.

Jarrera arrazista bat hartzea da sistema kapitalistaren arazoari aurre ez egitea, klase-gatazka mugapolitiken eta estatu-politiken bidez geldiarazten saiatzea, eta beti errudun beraren aurka jardutea, hau da, proletario immigrantearen aurka. Jarrera arrazista horrek ez du arazoaren erantzukizuna bere gain hartzen, kanpotik baitator arazo hori, eta, halaber, kontra egiten dio internazionalismo proletarioari, zeinak burgesiaren dominazioari eta horrek sortzen duen miseriari eraso nahi dien horiek iristen diren toki guztietan; senide proletario bat dagoen toki guztietan. ●

KOLABORAZIOA



KAPITALISMOA ETA MIGRAZIOA



Testua — **Ainhoa Jugo**

Azken urtean, ideia erreakzionarioak hainbat esparru sozial eta politikoren erdigunean jarri dira, Espainiako Estatuan edo Europar Batasunean ez ezik, maila globalean ere bai. Marko politikoa eskuinerantz ari dira lerratzen eta ideia erreakzionarioak gora doaz. Prozesu hori egungo egoeraren barruan ulertu behar da, non, kontraesan ekonomiko kapitalisten ondorioz, metaketa global kapitalistaren oinarri materialak gero eta murriztuago dauden.



Europaren kasuan, alderdi politikoez ezin diote aurre egin Ongizate Estatuaren atzerakadari; ondorioz, egunetik egunera beren bizi baldintzak okertzen ari direla ikusten dutenek — etxebizitza lortzeko zailtasun handiagoak dituztenek, miseriazko soldatak jasotzen dituztenek edo inflazioaren hondamendiak jasaten dituztenek — erreakzionatu egin dute ezintasun egoera horren aurrean, indar erreakzionarioen autoritarismoarekin bat eginez. Testuinguru honetan, ez dago langile mugimendua gidatuko duen norabide politikorik; bestela esanda, ez dago, langile klasea kontzientziatuz eta burgesiaren klase erasoaldiari aurre eginez, proletarioen borroka antola dezakeen Alderdi Komunistarik. Ezintasun horrek ideia erreakzionarioenetara garamatza.

Gainera, langile gehienek bizi baldintzak larriagotzearen ondorioz sortutako gatazka arintzeko, norabide autoritarioa hartu du Estatuak. Errealitate horren adibide dira zigor esparrua gogortzea, mugak militarizatzea edo polizia kopurua etengabe handitzea. Horrek guztiak haztegi egokia sortzen du arrazismoa, ustezko segurtasunaren diskurtsoa eta gainerako joera erreakzionarioak hedatzeko, zeinek, aldi berean, agertoki perfektua ezartzen baitute erreforma juridiko gehiago autoritarismoklabean ezartzeko. Biraketa autoritarioak eta ideia erreakzionarioek, dudarik gabe, eragina dute elkarren kausalitatean.

MIGRAZIO FLUXUAK ETA MIGRATZAILEAREN KONDIZIOA

Kapitalismoaren historia, aldi berean, migrazio fluxuen historia da. Hasieratik eta bere garapen historiko osoan zehar, kapitalismoak esklaboen, pobreen eta behartsuen desplazamendua eragin du. Hortaz, banaezinak dira metaketa kapitalistaren prozesu historikoa eta proletariotzaren mundu mailako mugimendua.

Historian zehar proletarioak modu masiboan lekualdatzeko arazoiek sustrai ekonomikoak eta politikoak dituzte. Arrazoi horien atzean produkzio harreman kapitalistak ezkututzen dira, hau da, kapitalaren metaketa. Horregatik, migrazioaz ari garenean, fluxu horien kausak gizarte kapitalistaren ezarpenean kokatu behar ditugu.

Adibidez, kapitalismoaren aurreko gizarteetan “kanpoko zirkunstantziak” eragiten zituzten nagusiki migrazio fluxuak, adibidez klimaren bat-bateko aldaketek edo nekazaritza gizartearen erreproduktzio aukerak oztopatzen zituzten uholdeek eta lehorteek. Aldiz, gizarte industrial burgeserako trantsizioan, produkzio harreman kapitalistak harreman feudalen gainetik jartzen hasi ziren; orduan, lur jabetzarik gabe geratu zirenen lehen desplazamendu masiboak gertatzen hasi ziren, zeinek landa-eremuetatik hiriguneetara migratu zuten soldata baten bila. Hau da, masa proletarizatuak migratzen hasi ziren beren lan indarra saldu ahal izateko; desplazamendurako arazoiak erabat ekonomikoetara mugatu ziren, eta horrek arrazionalitate hertsiki ekonomikoa eman zien lekualdatze horiei.

Produkzio harreman kapitalistak finkatu ondoren, inperialismoak munduko lurraldeak erlazionatzeko modu historikoa izateari ekin zion. Kapitalaren errentagarritasunarekin eta metatze tasa mantentzearekin lotutako kontraesanak sortu ziren, eta, ondorioz, burgesiak espazio berriak bilatu behar izan zituen bai esplotazio kapitalistarako, bai kapital soberakina eta soberako eskulana modu errentagarrian inbertitzeko. Burgesia horren helburua zen merkatua zabaltzea kapitalismoak oraindik garatzeko aukera zuen eremuetara, hala nola Afrikara eta Asiara.

Hedapen horrek harreman sozialak eraldatu zituen mundu mailan. Alde batetik, zentzu politikoan, lurraldearen antolaketak nazio-estatuaren forma hartu zuen. Bestetik, zentzu ekonomikoan, lanaren nazioarteko banaketa berriak mundua bitan banatu zuen: erdigune inperialista eta periferia. Kapitalismoaren bi ezaugarri horiek erabakigarriak dira migrazio fluxuak ulertzeko.

Lehenengo elementuari dagokionez, nazio-estatuak ekoizpen harreman kapitalistak maila globalen garatzeko modu politiko moduan eratu ziren. Horrek mundua lurralde nazional independenteean banatzea ekarri zuen. Estatuak, beren dominazioa kudeatzeko eta interes ekonomikoak hedatzeko tresna burges gisa, muga politiko berriak eraiki zituzten planetan zehar. Horrela, burgesiak, lurraldearen gaineko subiranotasun politikoa finkatzearekin batera, migrazio legeria eta politikak ezarri behar izan zituen, lurraldeetan sartzeko eta bizitzeko prozedurak arautuz.

Nazio-estatuaren nazioarteko ordena politiko kapitalistaren ondorioz, langile nazionala eta atzerritarra juridikoki bereizten hasi zen burgesia, eta bereizketa hori aprobetxatu zuten diskurtso arrazistak zabaltzeko, zeinak proletariotza banatzen baitzuten. Hori horrela izanik, esan dezakegu kapitalismoaren antolaketa politikoa dela nazio-estatuaren ideia arrazistei zentzu historikoa ematen dien oinarri materialerako bat. Gaur egun, adibidez, segurtasun gabeziaren, Ongizate Estatuaren suntsipenaren edo soldata atzerakadaren kausa da, itxuraz, etorkinen etorrera, eta horrek arrazakeria hedatzen zein migrazio fluxuen murrizketa justifikatzen laguntzen du. Nahiz eta zentzu komun burgesak estatu bateko biztanleen eta atzeritarren arteko mugak edo bereizketak naturalizat jotzera bultzatzen gaituen, egiaz botere harreman kapitalistek egituratzen dute zatiketa hori.

[...] langile nazionala eta atzerritarra juridikoki bereizten hasi zen burgesia, eta bereizketa hori aprobetxatu zuten diskurtso arrazistak zabaltzeko, zeinak proletariotza banatzen baitzuten



Bigarren elementuari dagokionez, aurreratu dugu kapitalismoaren hedapen historikoak garapen desberdina eragin zuela erdigune inperialistan eta periferian. Kapitalaren dinamikak berezkoa duenez aberastasuna ateratzeko etengabeko beharra, eskualde garatuenetako enpresek merkatu berriak bilatu behar izan zituzten, ekoizpen kostuen eta irabazien arteko marjina handitu ahal izateko. Koloniak, adibidez, aproposak izan ziren beren ekoizpen plantak ezartzeko eta kostuak jaisteko; hori ahalbidetu zuen eskulan merkeagoa erabiltzeak, zeinetan definizioz urratzen baitziren gutxieneko eskubide politikoak. Aldi berean, burgesiak baliabide natural ugari eskuratu ahal izan zituen zuzenean eta doan. Ondorioz, lanaren nazioarteko banaketa artikulatu zen, eta horrek mugatu egin zituen eskualde periferikoek ekoizpen garapenerako zituzten aukerak. Estatu formalki independenteak baina politikoki erdigune inperialistak kontrolatuak ezarri ondoren –hau da, deskolonizazio prozesuaren ondoren–, nazioarteko oreak ez zen ia aldaketarik gertatu. Lurralde inperializatuen garapen ekonomikoa, beraz, mugatu egin zuten potentzia kapitalista handiek; bestela esanda, gune inperialistaren garapen ekonomikoa periferiaren azpigarapenari esker baino ez zen posible izan. Gaur egun, garapen bidean dauden herrialdeen ñabardurak gorabehera, oso argitzailea da banaketa: batetik, erdigune inperialista daukagu, garapen teknologiko handieneko ekoizpen tarreak dituen, eta, bestetik, periferia, balio erantsi txikieneko ekoizpena kondenatua.

Garapen desorekatu horrek, produkzio mailan ezberdintasunak eragiteaz gain, logikoki, gizartean ere eragiten ditu. Horrela, bizitzeko bi modu erabat ezberdinetan banatuta dago mundua. Mendebaldeko langileen borroka funtsezkoa izan zen bizi maila “onargarria” lortzeko; bizi maila horrek oinarri ditu zerbitzu publikoen nolabaiteko orokortzea, soldata-masek pisu handia izatea ekonomian eta zenbait eskubide politikoren aitortza. Baina munduaren beste zatiazen berealdiko esplotazioak modu penagarri eta ankerrean bizitzera behartzen ditu milaka milioi pertsona, eguneroko miseriaren eta heriotzaren mende, eta bidezkoa da onartzea hura gabe gauzaezinak izango lirakeela erdiguneko kontsumo moduak. Demagun multinazionalak ez dituztela planetako gainerako langileak esplotatzen; akaso uste dugu haiek guretzat ekoiztutako tresna elektronikoek, elikagaiek eta jantziek prezio bera izango dutela? Mendebaldeko bizimodua, kapitalismoaren gizarte koordenatuen pean, munduko pobreek mantentzen dute partzialki behintzat.

Mendebaldeko bizimodua, kapitalismoaren gizarte koordenatuen pean, munduko pobreek mantentzen dute partzialki behintzat

Gaur egun gertatzen diren migrazio fluxuen zati handi baten oinarrian bi bizimodu horien arteko egundoko polarizazioa dago. Etorkizun oparoagoa bilatzea da Mendebaldeko herrialdeetara migratzen dutenen motibazio nagusia. Pobrezia, gosea eta krisia funtsezko faktoreak dira ulertzeko zenbat proletario pilatzen diren “mundu askea” deiturikoaren mugetan. Gerrak eta jazarpen politikoa, izatez, fenomeno beraren ondorio logikoak dira. Estatuak eta potentzia garatuetako burgesiak mota guztietako diktadoreak promozionatzen dituzte proletarioa periferikoaren asmo politikoak geldiarazi eta beren menpe mantentzeko. Era berean, beren interesak arriskuan ikusiz gero, gerra hedatzen laguntzen dute. Eta, azken batean, planetako eskualde askotan era tragiko eta aldiberekoan gertatzen diren fenomeno horiek gertatzea ahalbidetzen duen ordena politiko eta sozialari eusten diote.

Ikuspegi horretatik, migratzailea munduaren zati garatuko proletarioaren interes berberak dituen proletarioa baino ez da; izan ere, bien emantzipazio aukera, nahitaez, nazioarteko burgesiaren botereari eusten dion jabetza-erregimena indargabetzean datza. Hala ere, migratzaileak, bere jaioterrian esplotazio handiagoa jasateaz gain, burgesia nazionalak egindako bereizketa juridiko eta diskurtsiboari aurre egin behar dio. Mekanismo horrek langile klasea politikoki zatitzeko funtzioa betetzen du “kultura nazionalaren oztopo gaindiezinei” edo, zuzenean, arrazismoari dei eginez, baina, horrez gain, migratzailearen eskulanaren posizio debalutua mantentzeko ere balio du. Eskubide politiko eta sozial jakin batzuk ukatzeak –hau da, bigarren mailako herritarren presentziak– areagotu egiten du kolektibo pobretuak berez dakarren mendekotasun harremana.

Gauzak horrela, migratzaileak okerren ordaindutako edo aitortza sozial txikieneko lanpostuetara soilik irits daitezke, baliabide edo prestakuntza ezaren ondorioz. Hori gutxi balitz, aparatu politiko oso bat dago Kapitalaren zerbitzura, migratzaileek kondizio horretan jarrai dezaten tematzen dena lurraldera iritsi eta lehen urteetan behintzat. Eskubide osoko herritartasuna lortzeko baldintza izanik lan kontratu bat berehala lortzea edo pare bat urtez modu irregularrean irautea, proletariotzaren zati bat lan merkatuko maila eskasenetan egotera kondenatzen du Estatuak. Hala, burgesiak eta Estatuak biztanleria migratzailea gainerakoengandik bereizita bizitzera behartzen dute, eta indar politiko erreakzionarioek egoera hori baliatzen dute beren diskurtso xenofoboak eta gezur arrazistak hedatzeko. Aipatutako bereizketak ahalbidetzen du, gizarte burgesean, gertaera berak aldi berean haserrea eta kezka eragitea baldin eta gizartean migratzaile bat badu protagonistak, edo, besterik gabe, gertaera garrantzirik gabea izatea baldin eta langile nazional batekin lotuta badago. Arrazismoak, azken batean, termino ideologikoetan adierazten du burgesiak sortzen duen langileen arteko banaketa ekonomikoa.

Hala ere, kontuan hartu beharreko elementu garrantzitsu bat ezkututzen du burgesiak biztanleria migratzailearekiko duen gorroto-diskurtsoak: eskulanaren inportazio selektiboa. Esan dugunez, diskurtso arrazista, gizarte burgesean, proletario periferikoen aprobetxamendu ekonomikoarekin konbinatzen da —bai migratzailearen jaioterriko aprobetxamendua, bai bere estatukoa—. Burgesiak mugak militarizatu ditu migratzaileen sarrera eta irteera Kapitalaren beharren arabera arautu ahal izateko; horretarako, oinarri hartu ditu, batetik, munduko banaketa politikoa nazio-estatuetan, eta, bestetik, migrazio mugimenduak, garapen ekonomiko kapitalista desorekatuak sortuak. Burgesiarentzat, migratzailea merkantzia da, eskulan esplotagarria, baina sozialki mehatxutzat aurkezten dena. Migratzailea subjektu debaluatutzat ulertzen da, eta, hain justu, hura esplotatzearen interes ekonomikoa da arrazismo instituzional eta diskurtso-boaren oinarria.

Baina zer zentzu du burgesiarentzat lan indar izugarri errentagarria ematen duenaren existentzia kriminalizatzeak? Mugen militarizazioak kontraesan hori adierazten du. Burgesiak eskulana inportatu behar du, baina ez mugaz gaindiko bere jarduera inperialistak eragiten duen modu masiboan.


Mugen kontrol militarri esker, burgesiak bere Estatuaren botere mugak sendotzen ditu, eta, beraz, lurraldean sartzen den potentzial esplotagarriaren kopurua arautu dezake. Horrela, politika burgesarrentzat funtzionala da arrazakeria, langileak zaitzeko edo biztanleria migratzailea zigor gisa erabiltzeko, baina, horrez gain, mugetako eraso militarra justifikatzeko ere balio du, bai behar diren migratzaileen kopurua gainditzen dutenen aurkakoa, baita Kapitalak eskatutako prestakuntza-baldintzak ez dituztenen aurkakoa ere.

Aitzitik, burgesiak eskulana behar duenean, mugak irekitzea eta behar horri erantzuteko izapide burokratikoak malgutzea eskatzen dute patronalek eta gobernuek. Baina beti Estatuaren aparatu militarren kontrol zorrotzaren pean.

Ikus ditzagun adibide batzuk. Extremadurako Eraikuntzaren Konfederazioak (CNC, gaztelaniazko siglan) ohartarazi zuen, eskulan faltaren ondorioz murriztu egin direla Extremadurako Autonomia Erkidegorako aurreikusitako sustapenak; adierazi zuen, gainera, ez dagoela proiektuak betetzeko behar adinako eskulanik, eta 9.000 profesional behar direla. Arazo hori atzerapenak eragiten ari da, eta beste proiektu batzuk ez dira aurrera ateratzen ari. Patronalak berak proposatu du irtenbidea: gune horretako migratzaileen egoera irregularra legeztatzea.

Urte honen erdialdean, Espainiako Diputatuen Kongresuan tramitatzen ari zen Legegintzako Herri Ekimenaren alde agertu zen Espainiako Enpresaburuen Elkartearen Konfederazioko presidentea, Antonio Garamendi. Jakina, haren helburua ez zen gizaki orok izan beharko litzuzkeen oinarriko eskubideak aitortzea. Bete gabeko hainbat lanpostu ziren haren kezka. Izan ere, hainbat sektoretako patronalek, hala nola ostalaritza, nekazaritza eta eraikuntzakoek, eskulan gutxi dagoela salatu dute.

Joan den abuztuan, Fabio Panetta Europako Banku Zentraleko (EBZ) Gobernu Kontseiluko kide eta Italiako Bankuko gobernadoreak adierazi zuen EBk eskulana inportatu behar duela, “legezko langile atzerritarren joan-etorria bultzatzen duten neurriak, erantzun arrazionala baitira ikuspegi ekonomikotik”. Era berean, Adrian Prettejohn Capital Economics enpresako analistak nabarmendu zuen “biztanleriaren zahartzearekin, immigrazio netoak nabarmen egin beharko duela gora, lan egiteko adinean dauden biztanleen kopurua mantentzeko egungo tamaina berean mantentzeko”.



***Migratzailea subjektu
debaluatutzat ulertzen
da, eta, hain justu,
hura esplotatzearen
interes ekonomikoa da
arrazismo instituzional
eta diskurtsiboaren
oinarria***



MIGRAZIOAREN ERREALITEA ESPAINIAR ESTATUAN

Espainiako Estatuko egungo migrazio errealitatea ulertzeko, lehenik eta behin ulertu behar dugu migrazio fluxuak arautzen dituen politika bi faktore hauen arteko orekan oinarritzen dela: batetik, periferiako eskulanaren trafikoaren kontrola eta, bestetik, estatu hartzaileen erantzukizun politika. Politika horien helburua estatu hartzaileak langile kopuru egokiaz hornitzea da, kapitala metatu ahal izateko; aldiz, pertsona horiek, herritar izanik, duten erantzukizun politiko eta soziala murriztu nahi da, askotariko herritar estatusak edo aldi baterako baimenak sortuz, adibidez. Pertsonak Kapitalaren interesen arabera sailkatzeko eta haiei baldintza sozial espezifikoak egozteko balio dute mugek.

Ikus ditzagun zifrak orain. Kontsultatutako datuen arabera, 2015etik gora egin dute Espainiako Estatura iritsi diren migratzaile legalek. 2015ean, 400.000 migratzailek pasatu zituzten estatuko mugak. 2022an, aldiz, kopurua 1.200.000ra igo zen. Kopuru horiei migrazio “irregularra” gehitu behar zaie, ez baitago zenbatuta mahaigaineratutako datuetan; azken horiek 31.219 izatera iritsi ziren 2022an, aurreko bi urteetan baino pixka bat gutxiago.

2015etik hona gora egin du Espainiako lurraldean urtero modu irregularrean sartzten diren proletario migratzaileen kopuruak. 2015ean, 20.000 pertsona baino gutxiagok lortu zuten Estatuko mugak pasatzea. 2021ean 40.385 eta 2020an 40.100 migratzaile izan ziren. Erregistratutako zifrarik altuenak 2018koak dira, 64.298 langile “irregular” sartu baitziren Espainiako Estatuan. Erregistratutako azken datuak 2023koak izan dira, eta, hartan, 56.852 migratzaile zenbatu ziren.

Horietako asko itsas bideetatik iristen dira. 2023an, 55.618 itsasoz iritsi ziren, eta 1.234 baino ez ziren iritsi lehorretik Ceuta eta Melillara. Egoera horrek, beraz, Mediterraneo itsasoa bihurtzen du azken urteetako migrazio fluxuen ibilbide nagusi, batez ere gatazka eremuetako masa proletarioen kasuan.

2014ko urtarrilean datuak biltzen hasi zirenetik, gutxienez 61.457 pertsona hil edo desagertu dira mundu osoko migrazio ibilbideetan. Mediterraneoan hil dira pertsona horien heren bat baino gehiago -28.806 pertsona-.

2023an migrazio-prozesuetan heriotza gehien eragiten duen arrazoia itotzea da (34.961 pertsona), eta, ondoren, garraio arriskutsuak (4.959 biktima). Indarkeriaren ondorioz 3.593 pertsona hil dira, eta 3.481 migratzaile hil dituzte muturreko ingurumen baldintzek zein aterpe, janari edo ur faltak. Gaixotasunek 1.579 heriotza eragin dituzte, eta istripuek 702. Gainera, 8.594 pertsona hil dira kausa ezezagunen edo aipatutako arrazoi bat baino gehiagok bat egitearen ondorioz.

Joan-etorri horiekin lotutako beste arazo bat mugan egiten diren itzulketa irregularrak dira. Barne Ministerioaren datuen arabera, 2017an Espainiako Gobernuak 607 pertsona errefusatu zituen mugan eta, 2018an, berriz, 658. Espainiako Gobernuo kideek idatzitako erantzunen batean adierazitakoaz gain, Barne Ministerioak ez du praktika horri buruzko daturik ematen, ez urte horietakoak, ez hurrengoetakoak. Eta kazetaritza-iturri batzuk datuak bilatzen saiatu badira ere, ezin izan dute aurkitu praktika horren zifra zehatzik. Opakutasuna erabatekoa da.

Kopuru jasanezin horiek ixten dute mundu osoko nahitaezko desplazamenduen gorakadak markatutako hamarkada; horri, gainera, EBren akordio berria gehitu beharko zaio, etorkizuneko Migrazio eta Asilo Ituna definituko duena. Akordio horrek asilo eskubidea are gehiago ahulduko du, eta Europako kontinenteko burgesiaren baimenik gabe EBra iristen saiatzen direnei oztopo handiagoak jarriko dizkie.

***Pertsonak Kapitalaren
interesen arabera
sailkatzeko eta haiei
baldintza sozial
espezifikoak egozteko
balio dute mugek***

ONDORIOAK

Kapitalismoak gure bizitzak gobernatzen dituenetik, funtsean, ez da batere aldatu artikulu osoan deskribatutako errealitatea. 1913an, Leninek ohartarazi zuen kapitalismoak “nazioen migrazio modu berezia” ekarri zuela, non “garapen azkarrean dauden herrialde industrialek (...) munduko merkatutik kanporatzen dituzten atzeratutako herrialdeak, beren mugen barneko soldatak batez besteko tasaren gainetik igotzen dituzten eta, beraz, atzeratutako herrialdeetako proletarioak erakartzen dituzten”. Proletario migratzaileei dagokienez, errusiarrak zehaztu zuen “kapitalismo aurreratuak indarrez xurgatzen dituela bere orbitara, bizi diren urrutiko eskualdeetatik urruntzen dituela, munduko mugimendu historiko baten partaide egiten dituela, eta aurrez aurre jartzen dituela nazioarteko jabe industrialek klase batu eta boteretsuarekin”. Proletarioek migratzeko zituzten arrazoiei dagokienez, hau adierazi zuen: “zalantzarik gabe, murturreko pobrezia jaioterrria uztera behartzen ditu pertsonak, eta kapitalistek modu lotsagabeenean esplotatzen dituzte langile etorkinak”. Baina, aldi berean, argi esan zuen “erreakzionarioek bakarrik itxi ditzaketela begiak nazioen migrazio moderno honen *esanahi progresisten* aurrean”.

Ordenaren Alderdiko politikariek muga natural eta eztabaida ezina ikusten duten lekuan, komunistok zatiketa artifizial bat ikusten dugu, burgesiaren botere politikoari erantzuten diona. Burokratek babestu beharreko lorategiak ikusten dituzten lekuan, proletariotza nazional eta periferikoaren azpiratzean oinarritzen den nazioarteko ordena ekonomikoa ikusten dugu komunistok. Enpresarietako eskulan debalutua ikusten duten lekuan, komunistok klase bereko kide bat ikusten dugu. Ezkerreko eta eskuineko erreakzionarioek beren frustrazio propioak askatzeko errudun bat ikusten duten lekuan, komunistok kamarada bat ikusiko dugu.

Leninek dioenez, “nazio bateko langileak beste batekoen aurka egitera bultzatzen ditu burgesiak, haiek bananduta mantentzeko ahalegina egiten baitu”. Politika komunistak, orduan, kontrako norabidean joan behar du: irmoki egiten dio aurre arrazakeriari, helburu izanik nazio guztietako proletariotzaren bat-egitea, indar politiko bateratua bitartez. ●

BIBLIOGRAFIA

Ritchie, G. et al. (eds.) (2022), *Marxism and migration*, Palgrave.

Mezzadra, S. & Neilson, B. (2017), *La frontera como método*, Traficantes de sueños.

Vogel, R. D. (2013), *Marxist theories of migration*, Wiley-Blackwell.

González, N. (2011). *Migrantes, procesos de irregularización y lógicas de acumulación y exclusión*.

Lenin (1913). *Capitalismo e inmigración del proletariado*.

De Genova, N. (2028), *The deportation power*.


DATU OROKORRAK


Eusko Jaurlaritza (2022ko urria), *VI Herriartasunaren, immigrazioaren eta asiloaren kulturarteko VI. plana 2022-2025*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Eusko Jaurlaritza (2018ko urria), *Migrazioarako Euskal Itun Soziala*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Portal de datos sobre migración, *Flujos migratorios internacionales*.

Espainiako Barne Ministerioa, *Inmigración Irregular 2024*.





Klase batasunaren apologia (bat)

Testua — **Eli Irazu**

Irudia — **Manubeltz**

Hiri handiko kale oker eta estuetan, langile ezezagunek beren eskuez eraikitako horma hotz eta isil artean, gizakiaren anaitasunarekiko fede handi bat gero eta gehiago ari zen zabaltzen eta heltzen. 'Kamaradak!'

Maksim Gorki

Denok entzun ditugu, azken urtean, Gazako genozidioaren apologistek esan dituzten astakeriak; azken finean, astakeria handiak esan behar dira egiten ari direna justifikatzeko. Astakeria hauetako bat, ordea, burutik ezin kendu nabil, hain da txarra gogoan utzi didan zaporea. Sare sozialetan asko entzun den ideia honetaz ari naiz: herrialde arabiarrek hartu beharko lituzketela palestinarrak; ez hainbeste arrazoi praktikoengatik, baizik eta Palestinaren auzia arabiarren auzi gisa ulertzen delako.

Esango didazue, agian, ez dela hainbesterako, askoz okerragoak esan dituztela sionistek, eta arrazoa edukiko duzue. Baina iruditzen zait esaldi honen atzean oso zabaldua dagoen politikaren ulerkera bat dagoela, eskuina ez ezik, sozialdemokrazia ere zeharo kutsatua duena.

**Noski langile klasea
anitza dela, noski
aitortu eta aztertu
behar ditugula gure
klaseak pairatzen
dituen zapalkuntza
ezberdinak (...).
Baina langile
klasearen arteko
ezberdintasunak
seinalatu eta hurrengo
arnasean gure
klasearen batasuna
aldarrikatzen
ez duenak, zer
aldarrikatzen
du benetan?**

Gazako genozidioa talde partikular baten arazoa dela baieztatzea, hain zuzen ere, berdintasunaren ideia-eraren ukapen gordin eta nabarmena da. Eskuinak esperientzia handia dauka honekin, era agerikoan defendatu baitu beti berdintasun eza: nazionalismoaren aldarria altxatzen du etorkinak eta bertakoak bereizteko; matxismoarena emakumea eta gizona mailakatzeko, eta abar. Gizadia taldeetan banatzen dute, eta bakoitzak bere interesak dituela baieztatzen dute, eta bakoitzari dagokiola horiek defendatzea. Horrela, gizakia benetan zatitzen duen hori ezkututzen dute: jabetza pribatua.

Baina eskuina ez da klaseaz ahaztu eta etengabe gizakien arteko ezberdintasunetan insistitzen duen bakarra. Identitate politiken intelektualak datozkit burura, arrazioa okzidentala eta patriarkala dela argudiatu dutenak beren katedretatik, eta marxismoa, “ideologia zuri bat”. Esan dutenak ezinezkoa dela zapalkuntza bat lehen pertsonan bizi ez duenak hura ulertzea; subjektibitate bakoitzak bere borroka partikularra duela... Ideologo hauek berdintasunaren alde daudela esaten dute, baina, praktikan, gizadiaren ikuspegi tribalista erreproduzitzen dute. Hauek ere gizadia benetan zatitzen duen hori ezkututzen dute: jabetza pribatua.

Eta noski langile klasea anitza dela, noski aitortu eta aztertu behar ditugula gure klaseak pairatzen dituen zapalkuntza ezberdinak, baita hauen dimentsio subjektiboa ere. Baina langile klasearen arteko ezberdintasunak seinalatu eta hurrengo arnasean gure klasearen batasuna aldarrikatzen ez duenak, zer aldarrikatzen du benetan? Zapalkuntzak gainditzeko zer proposamen daukate klasea haren batasuna ukatzeko soilik aipatzen duten horiek?

Ez gaitzela nahastu: gizakiaren berdintasun eta askatasuna ipar duenarentzako, langile klasea bakarra da, eta langile batzuen arazoa, guztion arazo. Ez dezala inork gutxietsi burua zorrotz eta bihotza irekia duenak ulertu dezakeena, egin dezakeena. ●

Sugar bat pizten ari zen hemen eta han, gizaki guztien arteko senidetasun argi eta indartsu batez lurra biltzeko sortua. Lurra bildu eta markatuko du; erraustu egingo ditu maltzurkeria, gorrotoa eta krudeltasuna, zeinek desitxuratu egiten baikaituzte, eta bihotz guztiak bihotz bakarrean urtuko ditu, langile askez osatutako familia lagunkoi estu batek lotutako gizon-emakume zintzo eta prestuen bihotzean. [...] Eta existentzia deseroso eta tristearen kaos lausoan, izar argitsu alai batek, etorkizunerako argi txiki batek, hitz sinple sentitu hori argitu zuen: ‘Kamarada!’

Maksim Gorki

“LORATEGIAREN” MUGETAN

Immigrazioaren geopolitika European eta Estatu Batuetan

Testua — **Jose Castillo**

Irudia — **Martiko(s)**



«Guk lorategi bat eraiki dugu. Dena ondo doa. Gizateriak inoiz eraiki duen askatasun politikoaren, oparotasun ekonomikoaren eta gizarte-kohesioaren konbinaziorik onena da. Baina munduaren gainontzeko zatirik handiena oihan bat da, eta oihanak lorategia indarrez har lezake. Izan ere, oihanak hazteko gaitasun handia dauka, eta euste-horma ez da izango lorategia babesteko bezain garaia»

Josep Borrell

Europar Batasuneko Atzerri eta Segurtasun Politikorako goi-ordezkaria



2022ko udazkenean, dagoeneko Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerraren hasieratik urte erdia baino gehiago igarota zela, goranzko inflazio-krisia Mendebalde osoa suntsitzen ari zela, eta Europari negu gorria zertorkiola Errusiako energia merkearen murrizketagatik eta areagotzen hasita zegoen hegoalderako immigrazioagatik, Josep Borrelllek adierazpen polemikoak eta argigarriak egin zituen. Europar Batasuneko Atzerri Politikarako goi-ordezkariak “lorategi” batekin konparatu zuen Europa, eta munduaren gainontzeko zatirik handiena “oihanarekin”. Ez zitzaion arrazoirik falta Borrelli; lorategia eta oihana elkarren mendekoak direla argudiatzea besterik ez zitzaion falta izan. Hau da, ezin da Ongizate Estatuaren lorategirik existitu baliabideen ustiapena eta lapurreta modurik gordinenean egiten den oihanik gabe.

Testu honen xedea ez da mundusistema kapitalista antolatzen duten zentro-periferia harremanen azterketa egitea. Aitzitik, azken hamarkadan Estatu Batuetako eta Europar Batasuneko migrazio-politikan martxan jarri diren politikak eta kontuaren atze-oihalean dauden arrazoi geopolitikoak aztertuko ditugu. Argi dago Borrelllek aipaturiko lorategia krisian dagoela aspaldiko urteetan; hala erakusten dute soldaten beherakadak eta estatuko zerbitzuak kaskartu izanak, osasungintza kasu. Baina Europan zehar indarra hartzen ari den eskuin muturrak (eta hain muturrekoa ez denak) migrazio-politikak eta muga arteko kontrolak gogortzea proposatzen du.



Eskuin muturreko alderdi politikoei –hiru talde parlamentario baitituzte jada Europako Parlamentuan eta alderdi nagusiak baitira botoetan zenbait estatutan (guztietan gobernatu ez arren), hala nola Italian, Frantzia, Herbehereetan edo Austria– “Europa gotorleku” moduko bat eraikitzea proposatzen dute. Europako gainbehera ekonomikoaren eta sozialaren arrazoiak proletariotza migratzailearen errua balira bezala. Ordea, errealitatea da zentro kapitalista deritzon horretako estatu guzti-guztiek soilik pertsona migratuen eskulan kantitate ikaragarrien bidez garatu dutela beren gizarte-eredua, eta eskulan horrek tokiko lan-indarrak bete nahi ez zituen lanpostuak betetzeko balio diela, bai eta zenbait sektoretako soldata-kostuak merkatzeko ere.

Ezein alderdik, haren erretorika arrazista gorabehera, ez dio immigrazioari uko egingo. Gizarte-harreman kapitalisten funtzionamendu normalaren funtsezko zutabe bat baita. Orduan, zeri egin behar diogu aurre? Benetako arriskua da harreman ekonomiko kapitalistak kudeatzen dituzten alderdientzat arazoa ez direla migratzaileak, baizik eta helmugako herrialdeko soldata-erlazioan sartzen ez diren migratzaileak. Azken batean, arrazakeriak desberdinarekiko gorrotoaren forma kulturala hartzen du, baina, haren sakonean, langile pobreakiko gorrotoa dago, ezin baita integratu soldata-zirkuituetan, zeinek gure gizarteetako eguneroko bizitza antolatzen duten. Eta orduan bihurtzen da arazo.

Europa martxan jartzen ari den migrazio-eredua izendatzeko, Michael Foucaulten obra ezagunari erreferentzia eginez, *zelatatu* eta *zigortu* hitzak erabil ditzakegu. Eredu horretan, alde batetik, mugak bijilatatu eta kontrolatzen dira, Europako estatuak beren gain hartu eta beren ekoizpen-prozesuetan uneko ziklo ekonomiko bakoitzean benetan integratu dezaketena izan dadin pertsona migratzaileen joan-etorria. Eta bestetik, destinoko mugen barruan soldatapeko bizimodu arruntean integratzen ez diren migratzaileak zigortzen dira. Eta horrela, zenbait neurri politiko jartzen dituzte martxan: migratzaileak itzultzea eta mugakide diren herrialdeei ordainketak egitea migratzaileen joan-etorriak kontrola ditzaten, eta aldi berean, zigorkodea pixkanaka gogortzea, besteak beste lapurreta txikiak edo bandalismo-ekintza txikiak gogorrago zigortzeko. Eta ekintza horiek egiten dituenak deportazioa izan dezake zigor modura, baldin eta pertsona hori legez kanpoko egoeran badago edo dagoen herriko nazionalitatearik ez badauka.

Europa migrazioa kudeatzeko eredu estatubatuarra hurbiltzen ari da; izan ere, munduko potentzia ekonomiko nagusiak migrazio-harrera bijilantziaren, kontrolaren eta zigorraren konbinazioaren bidez kudeatu du urte luzez. Hortaz, gure “lorategi” europarraren orainari buruzko sarrera horren ondoren, ozeanoaren beste aldera joango gara ikusteko zer antzekotasun dauden Estatu Batuek aplikatu dituzten migrazio-politiken eta Europar Batasunak azken hamarkadan aplikatzen dituenen artean.

Zentro kapitalista deritzon horretako estatu guzti-guztiek soilik eskulan migratzaile kopuru ikaragarrien bidez garatu dute beren gizarte-eredua, eta eskulan horrek tokiko lan-indarrak bete nahi ez zituen lanpostuak betetzeko balio die, bai eta zenbait sektoretako soldata-kostuak merkatzeko ere



ESTATU BATUAK: MIGRATZAILEEN ETA HESIEN NAZIO BAT

Batik bat migratzaileek eraikitako naziotzat hartzen dira Estatu Batuak. Izan ere, aukera berrien bila kanpotik etorritako populazioaren bidez hedatu zen herrialdea mendebalderantz eta eraiki zen haren industria guztia. Hala ere, amets amerikarraren kontakizun horrek ahaztu egiten du Estatu Batuetako eraikuntza estatala eta nazionala hiru zutabetan oinarritu zela: arrazakeria instituzionalizatua, esklabismoa eta jatorrizko populazioa suntsitzea edo kanporatzea.

George Washington lehen presidente estatubatuarra onartu zuen Estatu Batuetako biztanleriaren nazionalizaziorako lehen legea, Naturalizazio Legea izenez ezaguna. Lege horrek finkatu zituen errepublika independente berriko herritar izateko arauak, 1790ean. “Izaera oneko” pertsona zuri libreen eskubide eksklusibo bat zen herritartasuna, eta herrialdean gutxienez bi urtez bizi izan zirenean. Kanpoan geratzen ziren jatorrizko amerikarrak, kontratupeko zerbitzariak eta esklabo beltzak.

Ez zen denbora luzea pasatuko imigranteak deportatzeko lehen legea etorri zen arte. John Adamsek ezarri zuen legea, nazioaren beste aita fundatzaile batek alegia, presidente zenean, zeinak 1798an atzerriko lagunen eta etsaien legeak onartu baitzituen. Lege horiek modua ematen zuten, presidentearen agindupean, “Estatu Batuetako bakerako eta segurtasunerako arrisku-tsutzat” jotzen zen edonor herrialdetik kanporatzeko. Lehen demokrazia liberal-burges osoetako batean ezarritako erregulazio-lege goiztiar horiek erakusten dute estatu kapitalistek ezinbestean behar dituztela imigranteak erakartzeko legeak, eta aldi berean, baita imigranteak kanporatzeko eta zigortzeko legeak ere, imigranteok ez badira asimilagarriak.

Hala eta guztiz ere, 1820 eta 1920 artean ia berrogei milioi imigrante iritsi ziren modu legezkoan Estatu Batuetara, ia guztiak europarrak: lehenengo irlandarrak eta alemanak, gero italiarrak eta austro-hungariarrak, eta azkenik, britainiarrak edo errusiarrak. Eraikitzen ari zen errepublika berriak agindutako promesengatik emigratzen zuten europar zuriekin batera, Afrikako kontinentetik milaka pertsona eramane zituzten indarrez, eskulan esklabo gisa aritzeko. Kalkuluen arabera, independentzia lortu baino lehenagotik hasi eta 1863an esklabotza ofizialki abolitu zen arte, 380.000 pertsona inguru lekualdatu zituzten Afrikako zenbait herrialdetatik baldintza ezin okerra-goetan, esklabo gisa saltzeko.

Ekintzaileez eta esklaboez gain, beste pertsona askok ere bidaiatu nahi izan zuten Asiako ekialdetik eta hegoaldeetik Estatu Batuetara, baina ez zuten hainbesteko erraztasunik izan. Estatu Batuetako XIX. mendearen eta XX. mendeko lehen erdialdearen ezaugarri nagusiak, migrazioari dago-kionez, populazio asiarraren kontrola eta harekiko xenofobia gordina dira. Estatu Batuetako Gerra Zibila amaitu eta urte gutxira, Gorte Gorenak erabaki zuen Gobernu Federalari zegokiola immigrazio-legeak ezartzea, eta ez estatu indibidualei. Gobernu Federalak, 1882an, Txinatarren Esklusio Legea eman zuen, txinatarrei Estatu Batuetara emigratzea debekatu ziena. Industrializazio prozesu betean, AEBko erdi-mailako klase zuri indartsuaren zati batek langile txinatarrei egozten zien soldaten jaitsieraren errua.

Antzeko zerbait gertatu zen japoniarrekin. 1907ko “zaldunen akordioa” deituriko ituna sinatu zuten AEBko eta Japoniako gobernuek, agintari japoniarrek izan zitezen beren populazioaren errepublika iparramerikarrerako emigrazioa murriztuko zutenak. Trukean, Estatu Batuek jada euren mugen barruan bizi ziren immigrante japoniarrei nazionalitate estatubatuarra erraztea eskaini zuten. Hori izan zen mugak kanpora ateratzeko lehen akordio aitzindaria. Ia bi hamarkada geroago, 1924ko Immigrazio Legea ezarri zen kuoten sistema gisa, sartzen ziren etorkinen kopurua mugatzeko, eta berriro ere asiarrak aipatzen ziren modu berezian^[1].

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, migrazioaren joerak zeharo aldatu ziren, Estatu Batuetara migratzen zuten gehienak ez baitziren jada europarrak. XX. mendearen erditik hasi eta gaur egunera arte, Hegoaldeko eta Erdialdeko Amerika izan dira Estatu Batuetarako immigrazio-espportatzaile nagusiak. Orduan hasi ziren migrazio-foku berri horren kontrol-politikak, bi mugarri nagusi dituztelarik. Alde batek, 2007an sinaturiko Mérida Ekimena jarri zen martxan; akordio horren bidez, Estatu Batuetako Kongresuak milioi askoko diru-partidak eman zizkien Mexikoko eta Erdialdeko beste herrialde batzuetako gobernuei, mugetako segurtasun-indarrak modernizatzeko. Eta bestetik, 1996an muga-harresi bat eraikitzen hasi ziren Estatu Batuen eta Mexikoren artean, Bill Clinton presidente demokrata gobernuburu zela^[2].

Azken datu horrek honakoa ikusarazi behar digu: Trumpen aldekoek gaur egun egiten duten kontakizuna gorabehera, migrazio-politikak ez dira funtsean desberdinak izan errepublikarrekin eta demokratekin. Izan ere, bi alderdi politikoez dakite zein ekarpen handia egiten dion latinoamerikarren immigrazioak oraindik lehen potentzia globala denaren ekonomiari, baita legez kontraktotzat jotzen denak ere. *Institute on Taxation and Economic Policy* (ITEP) erakundeko ekonomialariek 2017an egindako ikerketa baten arabera, Estatu Batuetan bizi ziren dokumenturik gabeko 11 milioi immigranteek zergetan ordaindutakoaren portzentajea oso antzekoa zen zerga-ordaintzaile estatubatuarrek batez beste ordaindu zutenarekin alderatuta: batez beste diru-sarreraren %8 estatuko eta tokiko zergetan. Horren perspektiba edukitzeko, kontuan hartu behar da zerga-ordaintzaile aberatsenen %1ek batez beste %5,4ko zerga-tasa baino ez duela ordaintzen estatuko zergetan^[3].

Estatu Batuetako gizarte-sistema jadanik berez murriztuari egiten dioten ekarpenean giltzarri izateaz gain, lan-indarraren funtsezko zati dira. Legez kanpoko egoeran dauden immigranteak nekazaritza-uztetako langile guztien erdia baino gehiago dira, eta eraikuntzaren sektorean lan egiten dutenen %15. Bihar denak kanporatuko balituzte, herrialdeak osasun publikoko arazo larri bat izango luke, garbiketaren sektorearen laurdena osatzen baitute. Horregatik, AEBk migrazio-kontrolak gogortzeko eta arintzeko aldiak aplikatzen ditu lan-merkatuaren premien arabera, lan-merkatuak markatzen baitu benetan immigraziolehen bilakaera.

Gaur egun, Kamala Harrisen eta Joe Bidenen tandem demokratek arraza-gutxiengoaren alde agertu nahi du Donald Trump hautagai errepublikano nabarmen xenoboaren aurrean. Baina datuek diotenez, 2023an, Bidenen agintaldian, Trumpen agintaldiko edozein urtetan atxilotu zirenak baino bi aldiz immigrante gehiago atxilotu zituzten Mexikoko muga^[4].

Desberdintasun nagusia alderdi bakoitzaren Migrazioeko kanpo-politika da. Trumpek hitz eman du Latinoamerikako gobernuen laguntzarik gabe ere gogor jokatuko duela immigrazioaren aurka, bere mugen erabateko militarizazioak migrazio-fluxuak murriztuko dituelakoan. Ordea, hegoaldeko mugako herrialdeei eskaintzen zaien laguntza berrezarri eta handitu du Bidenek, herrialde horiek arduratu daitezkeen pertsonen fluxu horiek kontrolatzeaz.

Urrutiago joan gabe, aurtengo irailan bertan, presidentetzarako kanpainan betean, gobernu estatubatuarrek iragarri du 658 milioi dolarreko beste diru-partida bat bideratuko duela Latinoamerikako eta Karibeko herrialdeei laguntzeko euren lurraldeetatik igarotzen diren migratzaileak har ditzaten. 2024an, Estatu Batuek dagoneko 1.200 milioi dolar baino gehiago inbertitu dituzte Los Angeleseko Adierazpenean aurrera egiteko. Adierazpen hori 2022an sinatu zuten hogeit bat herrialdek, eta, haren bidez, konpromisoa hartu zuten legez kanpoko migrazioa geldiarazteko eta migratzaileentzako legezko bideak zabaltzeko. Estatu Batuek immigrazioa kontrolatzeko eta murrizteko eredu bat eraiki dute, eta eredu hori hobetzen jarraitzen dute, immigrazioaren kontrola bere hegoaldeko mugara kanporatuz.

***Lehen demokrazia liberal-
burgues osoetako batean
ezarritako erregulazio-lege
goiztiar horiek erakusten dute
estatu kapitalistek ezinbestean
behar dituztela immigranteak
erakartzeko legeak, eta aldi
berean, baita immigranteak
kanporatzeko eta zigortzeko
legeak ere, immigranteok ez
badira asimilagarriak***



GOTORLEKU DEN EUROPA

Nahiz eta Europar Batasuna saiatzen den erakusten Estatu Batuen aldean potentzia tolerantetagoa dela eta giza eskubideak sustatzen dituela, pertsonen zirkulazio askea delakoan bere sorrerako balioetako bat, EBk ere baditu hesiak eta kontrolak, zeinetan milaka migratzailek bizia galtzen duten urtero. Zentzu horretan, Espainiako Estatu aitzindari izan zen bere hegoaldeko mugaren sekuritizazioan. Afrikako lurretan dauden Ceuta eta Melilla hiri autonomoak inguratzen dituzten hesiek ez daukate parekorik Europan. 1990eko hamarkadan eraiki ziren arren, gaur egun ere Europako muga-hesirik garaienak dira; antzeko bakarra Calaiseko da, Frantziak eraiki zuena Mantxako kanaletik Erresuma Batura igarotzen saiatzen ziren migratzaileei bidea eragozteko.

Baina inflexio-puntua errefuxiatuen 2014ko krisia izan zen, Siriako gerrak eragindakoa. Urte horretan bertan, Schengen eremuak (ustez mugarik gabeko eta zirkulazio askeko Europako espazioa) 315 kilometro zituen muga-hesiz eta harresiz osatuak. Gaur egun, hainbat neurritako hemeretzki hesik inguratzen edo zeharkatzen dute, eta 2.000 kilometro baino gehiagoko luzera dute. Gainera, punta-puntako bijilantzia-sistema gero eta gehiagoz hornituta daude, hala nola kamerak, droneak, mugimendu-sentsoreak eta zaintza-dorreak dituztenak. Eslovenia, Hungaria, Bulgaria, Grezia edo Polonia dira azken hamarkadan euren mugetan hesiak jarri dituzten Europako estatuetako batzuk^[6].

Schengen Mugen Kodeak, mugen Europako esparrua arautzen duenak, arrazoi larriengatik baino ez du baimentzen mugetako barne-kontrolak berriro ezartzea. Horretarako, ordena publikorako edota barne-segurtasunerako mehatxu larria dagoela argudiatu behar da. Salbuespen-mekanismu hori ia modu iraunkorrean erabili dute zenbait estatu kidek 2014. urtetik aurrera; horrela, salbuespena normaltasun berri horren garrantziaz jabetzeko, kontuan hartu behar da 2006 eta 2014 artean mekanismo hori 35 aldiz erabili zela, eta gehienetan, migrazio-kontrolerako baino gehiago, arrazoi politikoengatik. Adibidez, Frantziak 2006ko urrian erabili zuen Ezker Abertzaleak Baionan egin zituen jardunaldi politikoak zirela eta; Alemaniak 2007ko maiatzean eta ekainean G-8aren goibileraz zela eta; edo Norvegiak 2009ko azaroan eta abenduan, Oslo izandako Nobel Sariaren ekitaldia zela eta.





Baina 2015 eta 2018 artean, errefuxiatuen krisia deitutakoa hasi zenetik hiru urte eskasean, jada 72 aldiz aplikatu zuten itunaren klausula hori. Horietako askotan, gainera, Afrikarekin edota Ekialde Ertainarekin mugarik ez daukaten EB barneko herrialdeek aplikatu zuten, hala nola Norvegiak, Suediak, Danimarkak, Alemaniak, Austriak edo Hungariak. Nazio barneko mugen kontrola berreskuratzeko argudiatutako arrazoi nagusia “baimendu gabeko bigarren mailako mugimenduak” izan ziren. Hau da, migrazio-fluxuak Poliziaren edota militarren bitartez kontrolatzea. Zentzu horretan, Frantziako Estatuak kasu paradigmaticoa da; izan ere, 2015ean *Charlie Hebdo* aldizkari satirikoaren erredakzioaren kontrako atentatuak izan zirenetik, mehatxu terrorista iraunkorra dela argudiatuz, ez ditu inoiz muga-kontrolak erabat kendu, nahiz eta Schengen akordioak hala eskatzen duen^[6].

Errefuxiatuen krisiak eragindako beste mugarri bat izan zen EB hegoaldeko mugen kontrola erabat kanpora eramateko bidea hastea. Duela hamar-kada batzuk Estatu Batuak egiten hasi ziren moduan, azken hamarkadan EBko estatu kideak EBtik kanpoko hirugarren herrialdeekin migrazioa kontrolatzeko akordioak egitera bultzatu ditu Bruselak. Helburu horrekin, 2016ko martxoan, EBk Batasunaren migrazio-politiken bilakaera zehaztuko zuen akordio paradigmaticoa bat sinatu zuen Turkiarekin. Bruselak gehienez ere 6.000 milioi ordaintzeko konpromisoa hartu zuen Ankararekin, Turkiako Estatuak bere mugetan atxiki zitzaizkien Siriatic etorritako migratzaileak, baita beste herrialde batzuetatik etorritakoak ere, hala nola Afganistandik, Somaliatik edo Kongoko Errepublika Demokratikotik.

**Bruselak gehienez
ere 6.000 milioi
ordaintzeko
konpromisoa
hartu zuen
Ankararekin,
Turkiako Estatuak
haren mugetan
atxiki zitzaizkien
Siriatic etorritako
migratzaileak,
baita beste
herrialde
batzuetatik
etorritakoak
ere, hala nola
Afganistandik,
Somaliatik
edo Kongoko
Errepublika
Demokratikotik**

Akordio hori testuinguruan jartzeko, gogoratu behar da EBk berak geldiarazi egin zuela Turkia Batasunean sartzea, argudiatuz haren erregimen politikoak gabeziak zituela giza eskubideen errespetuari zegokionez. Akordioak bide eman zion Estatu horri berari, ordea, “beharrezko neurri guztiak” har zitzan “itsasoko edo lehorreko ibilbide berririk ireki ez dadin Turkiatik EBra legez kanpo migratzeko”. Horrez gain, akordioak berresten du Greziako Egeo irlalara legez kanpo iristen diren pertsona guztiak, asilo-eskatzailak barne, Turkiara itzuli behar direla. 2016an markak hautsi ziren Mediterraneo eta Europa lotzen dituzten hainbat ibilbidetan hildako pertsona kopuruari dagokionez, 3.800 pertsona baino gehiago hil baitziren bide horietan.

Akordioaren ondoren, Greziak, Syrizaren gobernu ezkertiarren agintaldian, bere irlen bidez sartzen zirenak giltzapetze-esparruetan egotera behartzeko politikak ezarri zituen, asilo-eskaerei edo Turkiara itzultzeko eskaerei buruzko erabakiaren zain. Amnistia Internazionalek eta NBEko Errefuxiatuentzako Agentziak (ACNUR) 2021ari buruz emandako datuen arabera, Turkiak 4 milioi pertsona errefuxiatu baino gehiago zituen, eta horien artean 3,6 milioi Siriatik zetozen, beste edozein herrialdetatik baino gehiago.

Baina hori ez da EB hamarkada honetan hirugarren herrialdeei ordainduta deuseztatzen saiatu den migrazio-gune bakarra; Libia edo Tunisia ere milioika euroko zaparrada batekin erosi izan ditu, Saheldik eta Saharaz hegoaldeko Afrikatik etortzen diren errefuxiatuak kontrola ditzaten.

Turkiak 4 milioi pertsona errefuxiatu baino gehiago zituen, eta horien artean 3,6 milioi Siriatik zetozen

2017tik, EBk immigrazioaren aurkako borrokan aliatu pribilegiatuetako bat bihurtu du Libia. Ehunka milioi euro ordaindu dizkiete Libiako agintaritzei, bereziki, migratzaileak itsasoan atzemateko eta Libiara itzultzera behartzeko ardura duten kostazainei laguntzeko. Libian, atxilotze-zentroetan kartzelaratzen dituzte. Hala eta guztiz ere, hildakoen kopurua ez da jaitsi Mediterraneo erdialdeko ibilbidetan. 2023an bakarrik, 2.500 pertsona baino gehiago hil edo desagertu ziren itsasoa bide horretatik igaro nahian, eta hori 2017tik izandako kopururik handiena da.

Libiako agintariek erabiltzen duten muturreko indarkeriaren ondorioz, Tunisia ibilbide erakargarriagoa eta merkeagoa bilakatu da Saharaz hegoaldeko eta Sahelgo migratzaileentzat. Sarbide berri hori geldiarazteko, EBk beste akordio bat sinatu zuen Tunisiarekin 2023an, migratzaile horiek atxiki zitzan. Urte berean, ACNURen arabera, Mediterraneo Italiarantz zeharkatu zuten sudandarren %84k Tunisian hartu zuten itsasontzia. 2022an, Libian hartu zuten ontzia %98k.

Mediterraneoko mugako herrialdeez gain, barne-lehia bat dago EB barruan, mugetako erantzukizunak nork hartuko bere gain. Horrela, Europa erdialdeko eta iparraldeko herrialdeek presio egiten diete hegoaldekoei, immigrazioa oztopa dezaten. Presio horren ondorioz, hegoaldekoek, beren borondatez, hirugarren herrialdeekin akordioak egiten dituzte, haien mugetako sarrerak kontrolatzeko. Horren adibide bat da Espainiako Estatuaren eta Marokoren arteko akordioa, zeinaren bidez Marokoko monarkiak kontrolatzen dituen Ceutara, Melillara eta Gibraltarko itsasartera joaten diren migrazio-fluxuak. Baina adibide berriagoak ere baditugu, Italiak eta Albaniak sinatu duten ituna adibidez; haren bidez, Giorgia Meloniren eskuin muturreko gobernuak eta haren Albaniako homologoak ezarri dute Albaniako lurretan migratzaileak atxikitzeko zentroen eraikuntza finantzatuko duela Italiak, paperik gabeko migratzaileak eta asilo-eskatzailak Italiatik Albaniara deportatu ahal izateko.

Hala ere, EB ez da gotortu mugak kanpora ateratzearekin bakarrik; gainera, migratzaileak kontrolatzeko in-dar militar propioa eratu du: Frontex, Mugetako eta Kostaldeetako Guardiaren Europako Agentzia. Frontex 2005ean hasi zen lanean, 50 langilerekin, 6 milioi euroko aurrekontuarekin eta funtzio tekniko oso mugatuekin. Gaur egun, agentzia horrek polizia eta militar gisa jarduten du migratzaileak itzultzen, EBtik kanpoko herrialdeetan ere jardun dezan legitimatu baitute. Zifrek Frontexen etengabeko hazkundera erakusten dute, gaur egun 2.100 langiletik gorako plantilla eta urteko 845 milioi euroko aurrekontua baititu^[7].



Hala ere, EB ez da gotortu mugak kanpora ateratzearekin bakarrik; gainera, migratzaileak kontrolatzeko indar militar propioa eratu du: Frontex


Migrazio-kontrolean ahalegin handia egin arren, immigrazioa funtsezkoa da EBko 27 estatu kideetako ekonomiaren funtzionamendu normalerako. Gogora dezagun, 2014ko errefuxiatuen krisiaren hasieran, Angela Merkel Alemaniako orduko kantzilerrak errefuxiatu haiek babestu zituela, eta Alemanian gera zitezen animatu. Keinu hori buruzagi alemaniarren elkartasun-adierazpen gisa ulertu zen, baina beste zerbait ere bazen. Izan ere, Siriatik atera zen lehen errefuxiatu-olatuko gehienak adin ertaineko gizonak ziren, goi-mailako ikasketak zituztenak, baina euren herrialdeko gerra egoeragatik ihes egiteko desesperatuta zeudenak. Beraz, errefuxiatu haiek pizgarri suertatu ziren Alemaniako makineria industrialarentzat, enpresariak soldata-kostu txikian eta ia prestakuntzarik jaso behar izan gabe erabil zitzaitezela. Ez zen gauza bera gertatu bigarren olatuarekin. Lehen errefuxiatu horiek beren familiak ekarri nahi izan zituztenean, Alemania ez zen harrerarako aurrekoan bezain prest agertu.

Antzeko jarrera suma dezakegu Pedro Sánchez Espainiako presidentek aurtengo abuztuan bertan esandakoan, migrazioa “onurak ekartzen dituen premia bat” dela esan baitzuen. Gambiara, Senegalera eta Mauritaniara egindako bidaia instituzional batean esan zuen. Bidaia horren xedea herrialde horiekin akordioak egitea zen, Kanarietako kostaldera legez kanpoko migratzaile gutxiago hel daitezzen. Sánchezek badaki azken urteetako enpleguari buruzko datu on samarren zati bat immigrazioari lotuta dagoela, azken bi urteetan, milioi bat pertsona gehiago enplegatuta baitira; horietatik 350.000 espainiarrak dira, 536.000 atzerriarrak, eta gainerako enplegua nazionalitate bikoitzeakoa.

Dena den, era askotako langile-talde horiek jasotzen dituzten soldatek oso desberdinak izaten jarraitzen dute. Latinoamerikatik datozen atzerriarren batez besteko soldata-sarrerak espainiarrenak baino %37 txikiagoak dira, afrikarrenak %34, eta europarrenak %17. Gainera, desberdintasunak handiagoak dira emakume migranteen kasuan^[8]. Hori dela eta, gizarte-bazterkeriaren eta pobrezia-aren tasak handiagoak dira etorkinen artean, eta euren integrazioa ordena sozialean korapilatsuagoa da.

Une honetan egoera honako hau da: Europako estatuek migratzaileen eskulana jaso beharra dute zenbait sektore ekonomikori eta haien gizarte-partidei eusteko, baina, aldi berean, ez dira gai immigrante horiek beren gizarteetan erabat integra daitezen bermatzeko. Horregatik, immigrazio-fluxu horiek Europako ekonomien benetako gaitasunera egokitzeko mugak kanporatzearekin batera, barnean, zigor kodeak gogortzen dituzte delitu txikiak kriminalizatzeko, hala nola supermerkatuetako lapurreta txikiak. Italiak, arlo horretan aurrelari dabilenak, debekatu egin nahi du agiririk gabeko immigranteek telefoniako SIM txartel bat eskuratzea, haiek isolatuta eta inkomunikatuta edukitzeko.

Migratzaileen kontrola, bijilantzia eta kanporatzea ez dira eskuin muturren agerpenarekin sortu, berezkoak dira estatu kapitalisten funtzionamenduan



ONDORIOAK

Mendebaldeko bi potentzia nagusien azterketa honek erakutsi nahi izan du migratzaileen kontrola, bijilantzia eta kanporatzea ez direla eskuin muturraren agerpenarekin sortu, baizik eta berezkoak direla estatu kapitalisten funtzionamenduan, eta zerikusi handia duela ziklo ekonomikoaren koiunturarekin.

Orain arte, Mendebaldeko bi familia politiko handiek gauzatu dituzte migrazio-politika nagusiak: sozialdemokratek eta kontserbadoreek. Politika horiek bat etorri dira estatuek une bakoitzean zuten integrazio- eta enplegarritasun-gaitasunarekin. Azken adibidea Alemanian daukagu; izan ere, gobernuak, sozialdemokratek, berdeek eta liberalek osatuak, Schengen ituna bertan behera utzi, eta bere mugetara itzuli du kontrola duela gutxi. Hori eraso terroristak geldiarazteko aitzakiarekin egin da, baina baita herrialde alemaniarrak 1990eko bateratze garaitik bizi izan duen krisi ekonomiko okerrenaren erdian ere.

Eskuin muturrak dakarren arazoa ez da migratzaileen sarrera geldiaraziko duela; ezein sistema kapitalistak ezin du horrelako zentzugabekeriarik jasan. Arazoa gehiago da sarrerako bideetan egin ahal izango duten hertsadura, baita proletario migratzaileei zein lehendik bertan bizi zirenei eragingo dieten barne-lege errepresiboak ere. Gainera, diskurtso arrazista naturalizatzen ari da, eskuin muturra aurkezten ari den borroka kulturalagatik. Arrazoi horiengatik da benetan arriskutsua argi eta garbi xenofoboak diren alderdi horiek gora egitea. Dena dela, Josep Borrelllek aipaturiko lorategiko atea ez dira beti zabalik egon, ezta hurrik eman ere. Baina infernua bizi denarentzat, lorategia beti da lorategi, baita zimelduta badago ere, eta ahal duen guztia egingo du bertara sartzeko. Gure zeregina, beraz, honakoa da: proletariotza mugarik, hormarik eta hesirik gabeko nazioarteko klasea dela hedatzea. ●

ERREFERENTZIAK

[1] Jenkins, Philip (2019): *Breve historia de los Estados Unidos*, Alianza Editorial, Madril.

[2] Paris Pombo, María Dolores (2022): “Externalización de las fronteras y bloqueo de los solicitantes de asilo en el norte de México”, *Revista Interdisciplinaria da Mobilidade Humana*, 30 (64), 101-116 or.

[3] Gee, Lisa Christensen; Gardner, Matthew; Hill, Misha E. y Wiehe, Meg (2017): “Undocumented Immigrants’ State & Local Tax Contributions”, *Institute on Taxation & Economic Policy*.

[4] Sigmon, Eric (2024): “De la campaña a la práctica: síntesis de la política de inmigración del presidente Biden”, *Real Instituto Elcano*.

[5] Potro, Lucas (2023): “La Europa de los muros”, *El Confidencial*.

[6] Barbero, Iker y Donadio, Giacomo (2019): “La externalización interna de las fronteras en el control migratorio en la UE”, *Revista CIDOB d’Afers Internacionals*, 122, 137-162 orr.

[7] González-Páramo, Ana (2021): “Frontex, la cara oscura de la Unión Europea”, *PAPELES de relaciones ecosociales y cambio global*, 155, 67-78 orr.

[8] González Enríquez, Carmen (2024): “Inmigración, trabajo, productividad y desigualdad en España”, *Real Instituto Elcano*.

ETORKINAREN MITOA ETA INTERNAZIONALISMO PROLETARIOA





Texto — **Pablo C. Ruiz**

Imagen — **Elene Uribarri**

Komunitate oro mitoz elikatzen da. Mitoak errelatoak dira, gutako bakoitzak munduan zer leku hartzen duen zehazten duten narrazioak, bizitzaren esanahia zein den esaten dutenak, pertsona bakoitzak historian duen misioa zehazten dutenak. Edozein narraziotan, pertsonaia batzuk lagun, aberkide edo kamarada gisa aurkezten dira; beste batzuk, aldiz, lehiakide, antagonista edo etsai gisa. Gizarte burgesean ere hala gertatzen da; etengabe ari da gainegitura ideologikoak sortzen eta, egitura horiek, gizartearen oinarrian dauden klase harremanak ezkutatu bitartean, gainbehera historikoan dagoen ordena bat mantentzea z arduratzen dira. Burgesiak ezin ditu bere ekoizpen moduak berezkoak dituen gatazkak desagerrarazi; alabaina, gatazka horiek birbidera eta eraldatu ditzake. Hortxe dago, hain zuzen ere, haren dominatzeko moduaren gakoetako bat: haren zibilizazio eredia arriskuan jartzen duen klase gatazka desplazatu egiten du, eta nazioaren gezurrezko komunitatearen eta barne zein kanpo etsaien arteko gatazka gisa aurkezten du. Gizarte burgesak bere buruari buruzko errelato bat sortzen du, eta, errelato horretan, etorkina gero eta rol garrantzitsua hartzen ari da.



IDEOLOGIA ARRAZISTA DESEGITEA

Xenofobia eta arrazismoa ez dira gauza bera, baina bata ezin da bata bestea gabe ulertu. Gehienetan gainjarrita ageri dira diskriminaziorako gailu bakar gisa; hala, xenofobiak eta arrazismoak estaldura ideologikoa ematen diote komunitate eredu baztertzaille, hierarkiko eta autoritario bati. Arrazismoa eta xenofobia aurreiritzi mota bat dira, gizarte kapitalistaren eguneroko praktikan txertatuta dauden egitura sozialak martxan jartzen dituztenak. Plano hertsiki ideologikoan, baliagarriak dira errudun gisa identifikatzeko “beste” arrotz eta galbideratzaile hori; izan ere, sakon errotutako aurreiritziak oinarri hartuta eta manipulazio mediatiko dosi handi baten laguntzaz, horrela azaltzen dute gauzak zergatik ez doazen joan beharko lirakekeen moduan. Komunitateak ez du aurrera egiten “beste” horrek eragindako perturbazioek galarazi egiten diotelako aurrera egite hori. “Beste” hori bihurtzen da arazo guztien iturri; etorkina bihurtzen da gaitz guztien ordezkari. Balizko “zibilizazioen talka” baten testuinguruan –edo, kasurik onenean, “lehen” eta “hirugarren” munduen arteko desberdintasun gaindiezin baten testuinguruan–, esaten digute kultura batzuk esentzian direla biolentoak, zibilizatu gabeak eta atzerakoiak. Diskurtso horrek bi emaitza nagusi ditu: alde batetik, bigarren edo hirugarren planora igarotzen da gizarte eredu kapitalista ezbaian jartzea, eta, beste alde batetik, bidea errazten da langile klasearen kapa zabalari bizi baldintzak eta askatasun politikoak degrada daitezzen.

Batzuetan, arrazismoa eta xenofobia nolabaiteko moderazioz hedatzen dira; horixe da “*not all immigrants*” tesia defendatzen dutenen kasua. Arrazista moderatuen iritziz, migrazio errespetagarri bat dago batetik, eta migrazio kaltegarri bat bestetik. Haien ustez, alde batetik, etorkin langile eta produktiboa dago, prest dagoena “integratzeko” eta tokiko biztanleek arau zibiko eta kulturalak errespetatzeko. Etorkin horrek oinarritzko eskubiak merezi ditu. Hari kontrajarrita, ordea, etorkin gatazkatsua dago, gure dirulaguntza-sistemaz eta zerbitzu publikoez aprobetxatu nahi duena eta ghettoetan bizi nahi duena jatorritzko herrialdeetako ohitura arkaikoak erreproduzitzeko. Bigarren etorkin horrek baztertua izatea, babesgabetasun juridikoa edo, zuzenean, deportazioa merezi du. Potentzialki zibilizatu gabea den heinean, etorkina –*edozein* etorkin– tokiko biztanleriaren begiradapean dago etengabe, diziplinatu eta erreprimitu egiten duen zaintza baten pean. Hala, behartuta dago *gainerakoak baino hobeto* jokatzera, *berdin tratatu* izatearen saria jaso nahi badu.

Etorकिनak, herritartzat hartua izateko eskubidea ez ezik, besteak bezalako gizakitzat hartua izateko eskubidea irabazi behar du. Akatsik gabeko eredu izatea exijitzen zaio. Hain zuzen ere, *Espainian atzerriarrak modu ezohikoan erregularizatzeko lege proposamenak* honako arrazoi hau aipatzen du, besteak beste, egoera irregularrean dauden etorkinek papearak izateko eskubidea dutela argudiatzeko: “Arrazoi hauetako bakoitzaren garrantzia biderkatu egin da pandemiak iraun duen hilabeteetan; izan ere, denbora horretan, egoera irregularrean dauden etorkinen komunitateek aurpegia eman dute gizartearen alde ezinbestekoak diren hainbat sektoretan, hala nola zaintza sektorean, etxek etxeko banaketetan edo fruta eta barazkien bilketan. Horren ondorioz, oso prezio altua ordaindu behar izan dute, asko kutsatu eta hil egin baitira. Gizarteak esker ona zor dio, zinez, gure gizarteko kolektiborik zaurgarrienetako bat den horri”^[1]. Ikusten denez, badira prezio berezia ordaindu behar dutenak edozein herritarri dagozkion funtzioak betetzeagatik. Hala, argi eta garbi ikus dezakegu etorkin onaren eta txarraren arteko bereizketa horrek beste bat gordetzen duela atzean: tokiko biztanleriaren eta etorkin guztien –osotasun gisa ulertuta– arteko bereizketa.

Etorकिनak epaitzeko erabiltzen den arrazismoaren oinarria etengabeko *cherry picking* bat edo “ebidentzia osatu gabeen falazia” da. Falazia hori honetan datza: itxuraz hipotesi bat berresten duten kasu edo datu isolatu batzuk aipatzen dira, eta, aldiz, berariaz kanpo uzten dira hipotesia gezurtatzen dutenak. Diskurtso arrazistek etengabe erabiltzen dute falazia hori. Ustezko krimenen edo delituen kasuan, legea hautsi duen subjektua ezaugarritzeko haren etnia, herritartasuna edo jatorria erabiltzen dute, ez hala presente dauden beste faktore batzuk (esaterako, haren gizarte bazterkeria-maila, adina, generoa, zaletasunak, arroparen kolorea edo ilearen luzera). Hortik modu arbitrarioan ondorioztatzen da delituzko jokabidearen *kaus*a norberaren jatorriari loturiko faktoreren bat dela. Era berean, legea hautsi duen pertsona edo erantzulea atzeritarra den kasu indibidualak erabiltzen dira ondorio orokorrak ateratzeko eta etnia oso bat edo atzeritar guztiak seinalatzeko. Hala ere, ezerk ez du adierazten jokabide horren kausa komunitate horretako kide izatea denik, serieko hiltzaile bat ilehoria izateak ilehori guztiei buruzko informazio orokorrik ematen ez duen modu berean. Beraz, indukzio hori ez da inondik inora ere zilegia, bistan denez. Bide batez, errealitatea beste bat da: Espainiako Estatuan soilik atzeritarren % 2k egin dute delituren bat.

Egia da, halaber, arrazistei gutxi inporta zaizkiela hori azaltzen duten datuak, egitateak eta arrazoa. Bilatzen duten gauza bakarra da aurretiaz berrestea modu ez-kritikoan onartzen duten aurreiritzi bat. Haien beldura, ziurgabetasuna eta ordenik eza baretu behar dute. Eta klase menderatzaileak erremedio bat eskaintzen du horretarako: esparru ideologiko bat diseinatzen du, zeinetan hainbat kategoriatako desjabetuak elkarren aurka lehiatzen diren itxuraz urriak diren ondasun multzo bat eskuratzeko. Ondasun horietako bat “segurtasuna” da, batzuek hura mantentzen dutelarik, eta beste batzuek, berriz, haren ondorioak pairatzen. Beste ondasun batzuk aberastasuna eta ongizatea dira, modu orokorrean. Eskaintza garestia da eta eskaria, berriz, gero eta altuagoa. Biztanleen artean nola *banatu* erabaki behar dugu. Zenbat eta pertsona gehiagok parte hartu aberastasun mugatu horretan, orduan eta zati txikiagoa egokituko zaio bakoitzari. Horren ondorio itxuraz logikoa honako hau da: banaketa horretan aurretiaz parte hartzen zutenei, hau da, “hemengoei”, lehentasuna ematea.

Biztanle migratzaileen aurkako arrazismoa da klase menderatzaileak azpiratuak erasotu, banatu eta azpiratzeko erabiltzen duen arma nagusietako bat; horrek nahikoa izan beharko luke arrazismoa argi eta garbi, eta irmotasunez, baztertzeko. Zoritxarrez, errealitatea bestelakoa da. Ezkerreko arrazismoa hazkunde kezagarri eta arriskutsua bizitzen ari da, neurri batean ez delako gai proiektu iraultzaile eta eraldatzaile bat proposatzeko, ez eta hazten ari den proiektu kontserbadore eta erreakzionario batekin lehiatzeko ere. Besteak beste Alemaniako Saha Wagenknecht-ek emandako argudioa berniz teknikoago batekin aurkezten da, modu irekian arrazista izan beharrean: etorkinek bizirauteko behar dituzten ondasunak handiagoak dira Mendebaldeko herrialdeek –kasu honetan, Alemaniak– behar horiei erantzuteko dituzten gaitasunak baino. Ez da gorrotoa, ez da arrazismoa. “Input” eta “output” kontua da.



[...] esaten digute kultura batzuk esentzian direla biolentoak, zibilizatu gabeak eta atzerakoiak. Diskurtso horrek bi emaitza nagusi ditu: alde batetik, bigarren edo hirugarren planora igarotzen da gizarte eredu kapitalista ezbaian jartzea, eta, beste alde batetik, bidea errazten da langile klasearen kapa zabalaren bizi baldintzak eta askatasun politikoak degrada daitezzen



Argudio hori defendatzen dute, halaber, Espainiako eta Euskal Herriko ezkerretako zenbait kidek, nahiz eta argudioaren premisa guztiak faltsuak izan. Lehen argudioa, eta orokorra, ekoizpen modu kapitalistaren aldekoa dela da. Kapitalismoak gehiegizko beharrezkoak sortzen ditu behar horiek asetzeko duen gaitasunaren aldean. Marxen teoriaren arabera, polo batean aberastasuna eta kapitala metatzen dituen bitartean, beste poloan miseria, proletarizazioa eta esplotazioa metatzen ditu. Ondorioz, egia da kapitalismoa desjabetuen aberastasuna mugatua dela haien beharrezkoan aldean, baina muga hori gizarte antolaketa loturiko muga bat da, eta ez gaindiezina den muga natural edo demografiko bat. Hain zuzen ere, kapitalismoa da gehiengo proletarioarentzako eskasia sortzen duena, eta eskasia hori berehala desagertuko litzateke baldin eta oinarrian “norbanako bakoitzaren garapen askea *guztion* garapen askearekin” bat etortzea duen asoziazio baten zerbitzura jarriko balira ekoizpen tresnak^[2]. Baina, horretarako, kapitalistak desjabetu beharko liriateke eta kapitalistak, noski, ez daude horretarako prest. Kapitalistentzat, xenofobia baliabide erabilgarria da ardura gainetik kentzeko eta beste norbaiten bizkar uzteko ordena sozial harmonikoa mantentzeko duten ezintasunaren pisua; zehazki, lan indar gisa baliatzen dituzten horien arteko kide zapalduen, pobretuen eta umiliatuenen bizkar. Eta mundu osoko ezkerren parte batek koipea ematen dio korronte horri, horrek kapitalistek langileak zapaltzea eta esplotatzea errazten badie ere.

Baina ekoizpen eredu kapitalista naturalizatzen eta ontzat ematen duen premisa faltsu hori onartuta ere, argudioaren aurriritzi arrazistak begi bistakoa izaten jarraitzen du. Baliabideak mugatua eta urriak dira, ez dago denontzako beste; baina zerk ematen die lehentasuna tokikoei, bertakoei, nazionalari, eta ez atzerritarrei, “kanpokoei”? Ezinezkoa da posizio horri eustea irizpide arrazistarik erabili gabe, eta hori ez dago inolaz ere justifikatuta “eskariak eskaintza gaitzen du” argudioaren begiradatik. Arrazismo hipokrita bat da hori, arrazista dela aitortzera ausartzen ez dena. Bere bertsiorik zorrotzenez, arrazismoak espezie bereko kideen arteko desberdintasun biologiko edo kultural oso nabarmen bati egiten dio erreferentzia. Desberdintasun hori hain omen da sakona, ezen ezinezko bilakatzen baitu elkar ulertzea, berdinen arteko komunitatea; izan ere, arraza objektiboki desberdinen artean, tratua desberdina baino ez da posible.

Marxista batentzat, arrazismoak zentzua du soilik menderakuntza harreman bati ematen zaion berniz ideologiko gisa ulertuz gero. Modu zehatzagoan esateko, periferiako nazioak sekularki azpiratzea arrazionalizatzen duen bitarteko gisa ulertuz gero. Klase baten gailentasuna estigma etnizistaren bitartez baliozkotzen da. Xenofobiaren eta arrazismoaren muina klase azpirakuntza da; diskriminazio xenofoba eta arrazaren araberrako diskriminazioa beti dira, modu zuzenagoan edo zeharkakoan, pobreekiko diskriminazioa.

ZENBAIT OHAR MARXISMOAREN IKUSPEGITIK

Kapitalismoak mundu mailako komunitate bakar bat sortzeko joera du, non tradizioaren eta kulturen antzinako jatorrien aztarnak objektiboki galtzen baitira nazioarteko gizarte berri batean. Elkarrengandik isolatuta zeuden komunitate nazionalak disolbatu egiten dira eskala globaleko prozesu ekonomiko inpersonalek hertsatuta. Migrazioa prozesu horien ondorioetako bat da, eta, aldi berean, etengabe indartzen ditu prozesu horiek. Modu batean, egia da kultura nazionala hondatzen duela. *Alderdi Komunistaren Manifestuaren* lerro hauek ezin hobeki azaltzen dute fenomenoak:

“Aberria, nazionalitatea, abolitu nahi izateaz ere salatuak dira komunistak. Langileek ez dute aberrik. Ezin zaie kendu ez dutena. Baina proletalgora, lehen lekuan hegemonia politikoa eskuratu behar duen heinean, klase nazionalaren kondiziora igo eta nazio bezala eratu behar duen heinean, oraindik nazionala da, baina ez inondik ere ez zentzu burgesean.

Isolamendu nazionala eta herrien arteko antagonismoak egunetik egunera desagertuz doaz burgesiaren, merkataritza-askatasunaren eta nazioarteko merkatuaren garapenarekin, ekoizpen industrialaren eta hark dakarren bizi baldintzen uniformetasunarekin.

Proletariotzaren aginteak oraindik eta azkartasun handiagoz desagerraraziko ditu.”^[3]

[...] kapitalismo globalizatuaren baldintzen pean, proletarioak “aristokrazia” eta “plebea” taldeetan banatzeak Mendebaldeko tokiko proletarioen eta periferiako proletario migratzaileen arteko banaketaren forma hartzen du tendentzialki

Auzia migrazioaren fenomenora ekarrita, Leninek tesi hori bera defendatzen du:

“Soilik erreakzioarioek itxi ditzakete begiak herrien migrazio moderno honen esanahitze progresistaren aurrean. Kapitalismoa gehiago garatu eta haren ondorioz klase borroka gauzatu ezean, ezinezkoa da Kapitalaren uztarritik askatzea. Eta, borroka horretan, mundu osoko langile masak txertatzen ditu kapitalismoak, ondorio izanik tokiko bizimoduaren ohitura atzeratu eta zakarrak desegitea, hesi eta aurreiritzi nazionalak desegitea, herrialde guztietako langileak Ipar Amerikako edo Alemaniako lantegi eta meatze handietan elkartzea, eta abar”^[4].

Estatu Batuen adibidea ematen du tesia osatzeko:

“Kapitalismo aurreratuaren egungo testuinguruan, nazioen asimilazio prozesua noraino iristen den uler dezakegu, gutxi gorabehera, Ipar Amerikako Estatu Batuetako emigrazioaren datuei begiratzen badiegu. 1891 eta 1900 arteko hamarkadan, 3.700.000 pertsona atera ziren Europatik herrialde hartara. 1900. urtean, Estatu Batuetako erroldan hamar milioi atzerritar baino gehiago zeuden erregistratuta. New Yorkeko estatuan, errolda horren arabera, 78.000 austriar, 136.000 ingeles, 20.000 frantziar, 480.000 alemaniar, 37.000 hungariar, 425.000 irlandar, 182.000 italiar, 70.000 poloniar, 166.000 errusiar (gehienak hebrear-rrak), 43.000 suediar eta abar zeuden; beraz, desberdintasun nazionalak xehatzen dituen errota dirudi estatu horrek. Eta lantegiak dauden herri edo hiri handi guztietan gertatzen da New Yorken eskala erraldoian, nazioartekoan, gertatzen dena.

Aurreiritzi nazionalistaz betea ez dagoen edonork ikusten du, ezinbestean, kapitalismoak gauzatuak nazioen asimilazio prozesu hau egundoko aurrerapen historikoa dela.”^[5]

Marxismoak adierazten duenez, langileen migrazioak gizarte global bat eratzeko prozesuaren parte dira, eta gizarte globala gizarte komunistaren oinarri materiala da. Burgesia da etorkinak atzerritar bilakatzen dituena, bera baita auresuposatzen duena badela denontzako lekurik ez duen komunitate nazional bat; izan ere, gutxiengo baten onurarako dago diseinatua. Proletario bat, aldiz, bere izaera antinazionalak definitzen du jatorriz. Proletarioen egoera kontrastearen bitartez hautematen da nagusiki: ez dute eskubide ekonomikorik ez politikorik, eta nazio ofizialek kanpo gelditzen dira. Hiri handi guztietako aldiriek zuzenean nazioartekoa den komunitate bat biltzen dute, eta, horregatik beragatik, neurri batean, antinazionalak ere badira. Aldiri horietan, herrialde desberdinetako herritar pobreak elkarrekin bizi dira, desjabetzearen loturak baino lotzen ez dituelarik. Hiri askotako aldirietako auzoetan aurki daitezkeen hizkuntzak, azal koloreak edo espresio etnikoak hain dira askotari-koak, ezen batek ez baitaki zehazki zein herrialde-
tan dagoen.

Are gehiago. Gaur egungo kapitalismo globalizatuaren baldintzen pean, proletarioak “aristokrazia” eta “plebea” taldeetan banatzeak Mendebaldeko tokiko proletarioen eta periferiako proletario migratzaileen arteko banaketaren forma hartzen du tendentzialki, gutxienez munduaren zenbait tokitan. Langile klasea beheko eta goiko kategorietan segregatzen da, eta, hala, bereizi egiten dira Estatuaren aparatuetan ekonomikoki, politikoki eta sinbolikoki integratuta daudenak eta integratuta ez daudenak. Herritar migratzaileak, oro har, bigarren talde horretan sartzen dira zuzenean. Kontraste horren ikuspuntutik begiratuta, lehen talde horretakoen eskubideak eta estimu soziala pribilegio bilakatzen dira, aldi berean bigarren taldekoak baztertzeke, estigmatizatzeke eta diziplinatzeke modua ere badirelako. Hala, arrazismoa, askotan, pobrenganako betiko arbuioari gainjartzen zaio.



Haien bizitza komunaren funtsa soilik izan daiteke beste guztiekin ere komunean ere duena; hau da, zuzenean edo zeharka espezieko kide guztiak barne hartzen dituen bizitza materialaren ekoizpen prozesuan elkarrekin parte hartzea. Oinarri horren gainean eraikitzen da internazionalismo proletarioa, humanismo proletario eta kontziente gisa uler daitekeena, nolabait

Langile klasea partzialki integratzeko mekanismo hori duela mende bat baino lehenagotik era biltzen da. Burgesiak ulertu zuen –edo bere burua behartuta ikusi zuen ulertzearen plantak egitera– langile klasea mendean hartzeko funtzionalagoa zela langile klasea zatituta izatea eta klase horretako zati bat nazioan integratuta izatea, hau da, klase menderatzailearen gezurrezko komunitatean. Zentzu horretan, Britainia Handiaren kasua paradigmaticoa da: “Britainia Handiko eliteek lortu zuten langile klaseko gero eta kide gehiago erregimen politikoaren herritar aktibo gisa integratzea gezurrezko nazioan. [...] Eliteek abiatutako erreforma multzo horrekin batera, astiro baina segurtasunez aurrera egiten zuen prozesu bat gauzatu zen, zeinaren bitartez pribilegio horiek jaso zituzten langileek pixkanaka bere egin baitzuten nazio britainiarren ideia, oinarri hartuta arrazak eta erlijioak batutako herri bakar bat izatearen ulerkerak”^[6].

Ikusi dugunez, langile aristokraziaren ordezkari politikoak marko berberaren bi muturren artean dabilta proletariotza migratzailearen kontrako jarrerara hartzen dutenean. Mutur batean humanitarismo errukitsua, etorkorra, daukagu, sufritzen ari diren *adingabetzat* hartzen dituen proletario migratzaileak, eta gehienez ere haien egoera arintzeko zenbait neurri proposatzen dituen. Hala ere, oro har, ez du haiengatiko interesik erakusten. Haren publikoa, hau da, haren hartzaileak –hauteskundeetako *targeta*– beste batzuk dira. Baina sektore sozial horrek, krisi garaietan, arriskuan ikusten du bere posizio erlatiboki eroso, eta haiek mehatxu gisa detektatzen hasten da. Haren ilusio demokratikoak etsipen bilakatzen dira; haren esperantzak, beldur. Posizioa aldatu, eta mehatxuen aurrean go-tortzen saiatzera igarotzen dira; mehatxu horiek, ia beti, gutxiengoia eta beste proletario batzuen itxura hartzen dute. Hor kokatzen da, hain zuzen ere, lehenago aipatu dugun “ezkerreko arrazakeria”. Humanitarismoak eta izaera sozialdemokratadun arrazismoak marko berberari erantzuten dio, zeinetan etorkinak beti “beste hori” diren, zeinak *lagundu*, *zigortu*, *tutelatu* edo *deportatu* egin behar diren, baina inoiz ez diren “gutariako bat”. Politikari erreformistek komenientziaz mantentzen duten proletariotzaren barne banaketa hori da burgesiaren menderakuntzaren sekretua.

Luze lantzekoa da Marxek idatzitako testu baten honako pasarte hau:

“Langile ingeles arruntak gorroto du langile irlandarra, bere bizi maila murrizten duen lehiakidetzat duelako. Haren aurrean, nazio menderatzaileko kide sentitzen da, eta, ondorioz, aristokratek eta kapitalistek Irlandaren aurka egiteko duten tresna bilakatzen du bere burua, eta, hala, haiek irlandarren gainean gauzatzen duten menderakuntza indartzen du. Aurreiritzi erlijioso, sozial eta nazionalak ditu haren [langile irlandarraren] aurka. Harekiko jokatzeko duela zuri pobreak Amerikako Batasuneko esklabuen antzinako etxaldeetako beltzekin. Irlandarrak txanpon berarekin ordaintzen dio. Langile ingelesean ikusten du bai konplize bat, bai Irlandaren gaineko menderakuntza ingelesaren tresna ergela. Antagonismo hori modu artifizialean mantentzen da piztuta, eta prentsaren, pulpituaren edota aldizkari komikoen bidez indartzen da, hau da, klase menderatzaileek eskura dituzten biarteko guztien bidez. Antagonismo hori da Ingalaterrako langile klasearen inpotenziaren sekretua, haren antolakuntza gorabehera. Horri esker mantentzen du, hain zuzen ere, klase kapitalistak bere boterea.”^[7]

Nazioarteko gezurrezko komunitate hori, jabeek eta proletariotzaren zati batek proiektu interklasista bakar baten baitan osatua, “faltsua” da, faltsua den bezala harri-kartoizko etxe bat. Baina horrek ez du esan nahi existitzen ez denik. Proiektu nazional bakar baten baitan biltzen diren jabeen eta desjabetuen komunitatea existitu egiten da, nahiz eta hura gerra zibilaren eta basakeriaren bidez disolbatzeko mehatxua eragin krisiak; are gehiago, existitzeaz gain, herrialde guztietako politikaren panorama dominatzen du. Desparekotasunak, hierarkiak eta bereizketak existitu egiten dira proletariotzaren barruan, benetakoak dira. Baina langileen aristokraziaren eta plebearen arteko banaketa horrek, nahiz eta aristokrazia horrek plebeak baino posizio hobea izatea eragiten duen, zaildu egiten du langile klasearen bizi baldintzak mantentzea, eta zer esanik ez hobetzea. Helburua, beraz, posizio horiek praktikan gaintzea da, hau da, komunitate internazionalista, benetakoak den komunitate bakarra, ekintzetan ere existitzea.



Klase kontzientziadun langile batek, dagoen herrialdea edozein izanik ere, haren patua edozein izanik ere, nahiz eta arrotz sentitu hizkuntza ezagutu gabe, lagunik gabe, jaioterritik urrun, kamaradak eta lagunak aurki ditzake Internazionala kantuaren errepika ezagunarekin

INTERNAZIONALISMOARI BURUZ

Marxen testuek ideia honetan egiten dute azpimarra: “klase ekoizlearen emantzipazioa gizaki guztien emantzipazioa da, sexua edo arraza berezi gabe”^[8]. Haren teoria osoa aintzat hartuta, alderdi zentraletako bat honako tesi hau da: gizaki guztiak, espezie bereko kide diren heinean, *berdintasun* harreman zorrotz batek loturik daude. Alabaina, kapitalismoak *klasetan* bereizten ditu espezie bereko norbanakoak. Klase egitura horrek,aldi berean, beste era bateko desberdintasunak eta hierarkiak indartu eta erreproduzitzen ditu. Ondorioz, kapitalismoa desagerrarazteak, klaseak desagiteaz gain, klase bereizketa horren gainean eraikitako hierarkia guztiak ere desagiten ditu.

Internazionalismoaren oinarrian dagoen berdintasun hori ez da norbanako abstraktuek legearen aurrean duten berdintasuna, doktrina liberalean gertatzen den moduan. Ez da, ezta ere, merkantzia baliokideen jabeen arteko berdintasuna, merkatuan existitzen dena bezalakoa. Marxismoak defendatzen duen berdintasuna honetan datza: komunitateko kide guztiak eskubide berdina izatea gobernuan jarduteko, edozein izanik ere bakoitzaren jatorria, etnia, erlijioa, sexua, aberastasun indibiduala edo hizkuntza. Gizaki bakoitza gainerakoekin duen harremanaren bitartez bakarrik izan daiteke berez den hori.

Haien bizitza komunaren *funtsa* soilik izan daiteke beste guztiekin ere komunean ere duena; hau da, zuzenean edo zeharka espezieko kide guztiak barne hartzen dituen bizitza materialaren ekoizpen prozesuan elkarrekin parte hartzea. Oinarri horren gainean eraikitzen da internazionalismo proletarioa, humanismo proletario eta kontziente gisa uler daitekeena, nolabait. Bistakoa da, gainera, demokrasiaren printzipioekin duen lotura, jatorrizko esanahi iraultzailea kontuan hartzen badugu: “Demokrasiak berdintasuna inplikatzeko du. Argi gera dadin zein garrantzitsuak diren proletalgaok berdintasunaren alde egiten duen borroka eta berdintasunaren kontsigna, hura *klaseen* suntsiketaren zentzuan ulertu behar da”^[9].

Gizakien arteko berdintasun konkistatzeko, beharrezkoa da klaseak desagerraraztea, norbanako guztien arteko berdintasun soziala erdiesatea. Horretarako, halaber, klase gizartea iraultzera deitua den klasearen barnean berdintasuna lortu behar da; hau da, “aristokraziaren” eta “plebearen” arteko berdintasuna, proletariotzaren barruan eta, horretarako, lehena bigarrenari subordinatu behar zaio. Azken asmo horri lotuta, beharrezkoa da, era berean, nazio inperialistako proletarioen eta nazio periferikoetako proletarioen arteko desberdinkeria gainditzea, eskubidedun proletarioen eta eskubiderik gabekoen, eroso dauden proletarioen eta baztertutako proletarioen artekoa alegia. Katebegi horiek guztiak proletariotza bere kabuz antolatzekeko prozesu politikoko prozesu bakar batean lotuta daude, eta prozesu horrek barne hartzen ditu, baita ere, proletariotzak bere kontzientzia hedatzea eta bere egitea sozialismoaren helburuak. Izan ere, sozialismoaren programaren eta kontzientziaren gainean gaindi daitezke desberdintasun horiek guztiak, eta ez interes ekonomiko sektorial berehalakoekin aldeko borrokaren bitartez.

Prozesu horretan, berdintasuna ez da soilik hel-
mugako geralekoa; ibilbide osoan zehar presente
egon behar den zerbait da. Diskriminazioaren, gre-
mialismoaren, nazionalismoaren eta korporatibis-
moaren aurkako borrokak ezaugarritu zituen bene-
tako sozialista guztiak. Hona, adibide gisa, Leninen
beste adierazpen hau:

“Hitz batzuk emigrazioari eta immigrazioari bu-
ruzko ebazpenaren harira. Kasu honetan ere, ba-
tzordean saiakera bat egon zen kontzepzio gremial
zurrinak defendatzeko, atzeratutako herrialdeetako
langileen immigrazioa debekatzeko (Txinako cooliee-
na, etab.). Izpiritu hori bat dator herrialde “zibilizatu”
batzuetako proletarioen artean hedatutako izpiritu
aristokratarekin; izan ere, beren egoera pribilegiatu-
ari esker, zenbait abantaila lortzen dituzte, eta, hala,
nazioarteko klase elkartasunaren eskakizunez ahaz-
teko joera dute.”

Hala, ulertzekoa da propaganda eta agitazioa,
bere horretan, nahikoa ez izatea mila milioika per-
tsonaren egunerokoan guztiz txertatuta dauden
ideologiak desnaturalizatzeko. Horrekin batera,
beharrezkoa da, halaber, praktikaren esperientzia
bizia, elkartasun internazionalista aktiboa. Nazio
desberdinetako proletarioen ekintza bateratuak
bakarrik frogatzen du egintzen bidez atzerritarrak
eta tokikoak etsaiak direla dioen fikzio hori. Ekintza
horrek bakarrik frogatzen du proletarioen arteko
desberdintasun etnikoak, kulturalak, erlijiosoak
edo hizkuntzari loturikoak irrigarriak direla haiek
guztiak klase menderatzailearekin aurrez aurre jar-
tzen dituen antagonismo erradikalarekin alderatuz
gero. Ideologia xenofobo eta arrazistari *borrokaren*
bitartez soilik egin dakioke aurre; izan ere, soilik
borrokak frogatzen du aurreiritzirik gabeko ba-
tasuna indartsuagoa dela etsaitasuna eta zatiketa
baino. Kideen interesak ez badira baztertzailak,
baizik eta komunak, baten azken helburua ezin da
gatazkan egon bestearen azken helburuarekin. Ki-
de guztiak ekimen handi honek biltzen ditu: botere
politikoaren jabe egitea eta haren bitartez solda-
taren erregimena suntsitzea, erregimen horrek klase
bereko kideak elkarren aurka lehiazera kondenat-
zen baititu, etsaiak balira bezala.

Aurreko hori guztia Leninen lerro hauek labur-
biltzen dute modu ulergarrian: “Klase kontzien-
tziadun langile batek, dagoen herrialdea edozein
izanik ere, haren patua edozein izanik ere, nahiz
eta arrotz sentitu hizkuntza ezagutu gabe, lagunik
gabe, jaioterritik urrun, kamaradak eta lagunak
aurki ditzake *Internazionala* kantua errepika
ezagunarekin”^[10]. ●

ERREFERENTZIAK

[1] Espainian atzerritarrak erregularizatzeko
ohiz kanpoko prozedura baten lege
proposamena (XVI. Legealdiaren
120/000026 espediente-zenbakia).

[2] Marx, K., Engels, F., “Alderdi Komunistaren
Manifestua”, *Marxists.org*, 1848.

[3] Idem.

[4] Lenin, V., “Kapitalismoa eta langileen
immigrazioa”, *Marxists.org*, 1913.

[5] Lenin, V., “Ohar kritiko batzuk
nazio auziari buruz”, *Marxists.org*

[6] Virdee, Satnam, *Racismo, clase y
el paria racializado. Irlandeses, judíos,
asiáticos y negros en la clase obrera
británica*, Katakak Liburuak, 2021, p. 23.

[7] Marx, K., “Sigfrid Meyer-i eta August
Vogt-i gutuna”, *Marxists.org*, 1870.

[8] Marx, Karl, “The Programme of the
Parti Ouvrier”, *Marxists.org*, 1880.

[9] Lenin, V., “Estatua eta
Iraultza”, *Marxists.org*, 1917.

[10] Lenin, V., “Eugene Pottier”,
Marxists.org, 1913.

HISTORIA
ERREPORTAJEA

Migrazioen bilakaera historikoa

*

Marina Segovia



Historian zehar migrazio-desplazamenduak ohiko gertakariak izan badira ere, proletarioen migrazio masiboak XIX. mende hasieran gertatu ziren, industrializazioaren gorakada eta garapen kapitalista tarteko. Kapitalaren indarrek, beren sorreratik bertatik, lurrari eta eskulanari lotutako nekazarien kanporatze bortitzarekin, errotzerik gabeko klase sozial bat sortu dute, zeinak ez duen etxerik eta behartuta dagoen, soldatapeko langile izaera duenez, bere lan-indarra behar den lekura mugitzera.



XIX. eta XX. mendeetako migrazio-olatuaren jatorria arakatzeko, sistema feudaletik kapitalismorako trantsizio garaira egin beharko litzateke atzera. Garai hartan jatorrizko metaketaren prozesua gertatu zen, eta, haren bidez, biztanleriaren masa handiak, modu bortitz eta bat-batekoan euren bizi bitartekoak kenduta, merkatura jaurti ziren proletario libre eta desjabetu moduan. Marxen hitzetan, “berriki emantzipatutako langile hauek euren ekoizpen-bitarteko guztiak eta instituzio feudal zaharrek bermatzen zizkieten bizi-berme guztiak kendu ostean soilik bihur daitezke euren buruaren saltzaile. Eta desjabetze hori odolezko eta suzko trazu ezabaezinekin idatzirik gelditu da historia liburuetan”^[1].

Greminoen desegitea eta landa-eremuko jorنالariaren proletarizazioa nekazaritza-lanen ezegonkortasun tradizionalarekin batera gertatu ziren. Lan-segurtasunik gabeko testuinguru horretan, gero eta ohikoagoak bihurtu ziren Europako industriaurreko ekonomietan zeuden artisau ibiltariaren moduko figurak, zeinak lan mugikorretara jotzen zuten eta hainbat lan hartzen zituzten aldi berean. Eric Hobsbawmek *Kapitalaren garaia* liburuan dioen moduan: “XIX. mendeko langileen bizitza determinatu zuen faktore bat egon bazen, hori segurtasun eza izan zen”^[2].

Hedapen kapitalistarentzat hasiera-hasieratik izan da erabakigarria lan-indarraren mugikortasuna, batez ere lan-indar merkearena. Leninek kontu hori nabarmendu zuen: “Kapitalismoak biztanleriaren bortxazko mugikortasuna eragiten du; aurreko gizarte ekonomia sistemetan ez zen beharrezkoa, eta, neurri handi edo txikiagoan, ezinezkoa zen”^[3]. Ekonomia politikoari marxismoak egiten dion kritikan, migrazio masiboak, esentziaz bortxazkoak, ekoizpen-modu kapitalistaren eraketaren parte dira. Era berean, garrantzitsua da aipatzea nazioarteko lan-banaketa eta gaur egungo dominazio-harreman kapitalisten aurrekari historikoa Mendebaldeko potentzia ekonomikoen finkapena izan zela. Potentzia horiek, jatorrizko metaketa gauzatu eta beren industrializazioa abiatzeko, kolonizazio- eta inperialismo-prozesuak erabili zituzten, eta, haien barranean, derrigortutako migrazio ekonomikoak eta esklaboen trafikoa. Kolonietako jatorrizko biztanleriaren zati handi bat sarraskitu eta lehengaiak eta metal preziatuak arpilatzearen eraginez, eskala handian inportatu behar izan zuten esklaboek eskulana. XVI. eta XIX. mendeen artean, 10 eta 20 milioi pertsona inguru eraman zituzten Afrikatik Amerikara esklabo esklabo moduan. Bien bitartean, klase agintariak Europatik kolonietarako migrazioa bultzatu zuten, gero eta jendetsuagoa zen klase proletario baten eraketaren eta eztanda iraultzaileak areagotzearen beldur. Derrigortutako migrazioaren inguruko Marxen analisisiek erakusten dute ezen, garapen kapitalistaren hasierako etapetatik, zentro inperialistako langileak kanporatuak izan zirela lan-merkatutik, ekoizpen-prozesuaren makinizazioa zela eta. Ondorioz, industriaren garapenarentzat eta metaketa kapitalistarentzat beharrezkoa zen soberako langileen masak sortzea, eta horrek gainpopulazio handia ekarri zuen.



Ekonomia politikoari marxismoak egiten dion kritikan, migrazio masiboak, esentziaz bortxazkoak, ekoizpen-modu kapitalistaren eraketaren parte dira. Era berean, garrantzitsua da aipatzea nazioarteko lan-banaketaren eta gaur egungo dominazio-harreman kapitalisten aurrekari historikoa Mendebaldeko potentzia ekonomikoen finkapena izan zela

Potentzia horiek, jatorrizko metaketa gauzatu eta beren industrializazioa abiatzeko, kolonizazio-eta inperialismo-prozesuak erabili zituzten, eta, haien barrenean, derrigortutako migrazio ekonomikoak eta esklaboen trafikoa

Lan-ındarraren mugimendu espazialaren formen artean, bi nabarmendu ziren: estatuen barneko migrazioak eta nazioartekoak. Kapitalak bere garapena sustatzeko sortzen dituen nazio-estatuen mugen arabera baino ez dira bereizten bi fenomeno horiek. Landa-eremutik hirirako lekualdaketak dira migrazio forma sinpleenak, lur komunalen pribatizazioak eta desjabetzeak, industria garapenak eta hiriak eskaintzen zituen lan-aukerek eragindakoak. Metaketa kapitalista azkartuak eta ehun industrialaren hazkuntza dinamikoak migrazio-foku bihurtu zituzten portu-hiri handiak eta meatze-arroak. Hasiera batean, sasoikako migrazio modua nagusitu zen: urritasun garaian, lurrik gabeko jornalariak meatze-eremuetara joaten ziren nekazaritzako atsedean-garaietan. Marxen iritziz, “biztanleria nomada” hori zen langileen sektore prekarioena: jatorria landa-eremuan izan, lan bila mugitu eta berdın erabiltzen zutena eraikuntzan aritzeko zein trenbideak egiteko. Landa-munduko emakumeak ere joaten ziren probintzietako hiriburueta euren kasara, neskame-lanetan aritzeko. Geroago, hirietarako migrazioak dibertsifikatu egin ziren, eta tipologia anitza sortu zen; horien artean familien migrazio-eredua nagusitu zen. Normalean, familiako kide bakarra lekualdatzen zen, eta behin hura kokatuta, gainerakoak mugitzen ziren. Hiri hartzaileak langile-auzoz bete ziren; burgesiarren zabalgunea eta hiri-espazioetatik urrun kokatzen ziren, industrien artean. Trenak langileen eta merkantzien mugikortasuna ahalbidetzen zuen, eta landa-eremutik hirirako mugimendua erraztu.

Industrializazio goiztiarraren lehen fase honetan, non nekazaritzako erreformek kanporatutako jornalariak Europako gunea industrialetara lekualdatu ziren, distantzia laburreko migrazio-prozesuak nagusitu ziren. Esate baterako, Lancashire (Ingalaterra) kokatutako Preston hiri kotoi-lantzaileak oso datu esanguratsuak izan zituen 1851an, beste manufaktura eskualde batzuetara estrapola

daitezkeenak: biztanleriaren erdia baino gehiago immigrantea zen, eta %40 inguru 18 kilometro eskaseko ingurunetik zetorren; aldi berean, immigranteen %30 soilik mugitu zen 45 kilometrotik gora; kanpotarren % 14 soilik zen irlandarra, eta 1840ko migrazio olatuaren ondorioz heldu zen hirira^[4]. Jatorrizko herria gertu egotearen eraginez, aldi baterako langileek aukera zuten uzta bildu eta ereiten zen garaian jornalari moduan lan egiteko, mantendu egiten ziren harreman komunitarioak eta irekita gelditzen zen migratzaileak bueltatzeko aukera.

Bigarren tipologiaren baitan, gertuko herrialdeen arteko migrazio-mugimenduak eta migrazio transatlantiko handiak aurki ditzakegu, metropoli eta kolonia arteko mugimendu tradizionalerik gehitu zitzaizkienak. Zaila da zehaztasunez kuantifikatzea garai hain goiztiarretako dinamika demografikoak eta migrazio-fluxuak; estatistika, klase dominanteen zerbitzurako sortu eta biztanleriaren kontrol sakonagoa ahalbidetzen zuena, nahiko zientzia berria da. XVIII. mende erdialdera, Estatu modernoaren sorrerarekin eta garapen kapitalistarekin batera, tresna estatistikoek eta gizartea erroldetan antolatzeak aukera eman zieten gobernuei gero eta modu zehatzagoan jasotzeko biztanleen kopurua, sexua, adina, osasun-egoera eta langintza. Jardun hori erabilgarria zen adin militarrean zeuden gizonen kopurua eta herrialde bakoitzaren baliabide demografikoak ezagutzeko, baina Europako herrialdeek ez zuten XIX. mendean aurrera egin arte ezarri biztanleriaren eta haren mugimenduen kontrol sistematikoa. Hortaz, zenbakiak aldatu egiten dira kontsultatutako iturrien arabera, nahiz eta, oro har, bi olatu bereiz ditzakegun Europako migrazio masiboen baitan: lehena, XIX. mende hasierakoa, non 1820 eta 1920 artean 60 milioi europarrek emigratu baitzuten Ipar Amerikara, eta, bigarrena, Bigarren Mundu Gerraren ostekoa.

Emigrazioak ez zuen eragin berbera izan zentro inperialistako potentzia guztietan, batetik bestera ezberdintasun handiak egon baitziren emigratio-tasetan zein helmuga-hautaketan. Herrialde hartzaile nagusiek, baliabide natural ugari eta eskulan eskasia zutenek, langile atzerritarren etorrerari traba legalik ez jartzeaz gain, Europako lan-indarraren immigrazioa erraztu zuten

Lehen olatua, historialari batzuek “nazioarteko migrazio handien garaia” izendatu dutena, mila biztanleko 10 eta 20 pertsona arteko immigrazio-tasetara heldu zen herrialde hartzaile batzuetan, egungoak baino tasa altuagoetara, alegia. 1880an, Europatik Ipar Amerikara emigratu zutenen kopuruak Afrikako esklaboena gainditu zuen lehendabizikoz. Migrazio-bolumen handieneko garaia 1870 eta 1913 artekoa izan zen. Emigranteen gehiengoa herrialde hauetatik zetorren: Britainiar Uharteak (15 milioi), Italia (10 milioi), Alemania (5 milioi) eta Espainia (5 milioi), eta helmuga nagusiak Estatu Batuak, Argentina, Kanada, Brasil eta Kuba izan ziren. Emigrazioak ez zuen eragin berbera izan zentro inperialistako potentzia guztietan, batetik bestera ezberdintasun handiak egon baitziren emigratio-tasetan zein helmuga-hautaketan. Herrialde hartzaile nagusiek, baliabide natural ugari eta eskulan eskasia zutenek, langile atzerritarren etorrerari traba legalik ez jartzeaz gain, Europako lan-indarraren immigrazioa erraztu zuten. Brasilen eta antzeko kolonietan, esklabotza abolitzeak arriskuan jarri zuen kafearen ustiapena, zeinak lurjabeen aberastasuna eta herrialdearen egonkortasun ekonomikoa sostengatzen baitzituen. Erantzun modura, immigranteak erakartzeko politika ambiziozkoak abiarazi ziren; haien bidez, besteak beste, garraioa eta bost urterako egonaldia eskaintzen zieten familia europarrei.

Oro har, irlandarrek, britainiarrek eta eskandinaviarrek Estatu Batuetara joatea erabaki zuten. Espainiarren kasuan, migratzaile gehienak Hego Amerikara joan ziren. Italiarren artean joera aldaketa bat ikus daiteke; izan ere, hasieran Latinoamerikarantz jo zuten, Brasil eta Argentina izanik helmuga nagusiak, baina 1901 eta 1915 artean, Estatu Batuak bihurtu ziren ozeanoz haraindiko italiar emigratioaren hartzaile nagusiak.

Irlandatik, zazpi milioi pertsona baino gehiago ontziratu ziren Estatu Batuetarantz, 1845 eta 1851 arteko gosetea zela eta. Gosete horren kausa nagusiak patataren uzta suntsitu zuen onddo baten ugaltzea eta kolono ingelesen mende zeuden errentari irlandarrek jasaten zuten nekazaritza-sistema zapaltzailea izan ziren. Migranteen profilari eta haien jatorrizko herrialdetik alde eginarazi zieten arrazoiei dagokienez, bi fase bereizi behar dira. XIX. mende hasieran, nekazaritzaren krisiaren eta gremio-artsautzaren amaieraren ondorioz alboratuak izan ziren nekazari eta artisauek migratu zuten gehienbat. Mende bukaera aldera, migratzaileen profila aldatu egin zen, eta formakuntzarik gabeko gazteak nagusitu ziren. Taulan ikus daitekeenez, 1880ko hamarkadatik, hau da, herrialde askotan migrazio-tasa maximoak izan ziren garaitik, Mediterraneoko eta Ekialdeko Europako gunek izan ziren migratzaile gehien igorri zituzten herrialdeak. Taulan atzematen denez, migrazio-olatu bakoitza aurrekoa baino handiagoa izan zen I. Mundu Gerra piztu baino apur bat lehenago maximora heldu arte.



EUROPAKO MIGRAZIO-TASAK
(urteko batez bestekoak 1.000 biztanleko)

HERRIALDEAK	1851-1860	1861-1870	1871-1880	1881-1890	1891-1900	1901-1910	1913	1921-1930
IRLANDA	14,0	14,6	6,6	14,2	8,9	7,0	6,8	5,9
BRITAINIA HANDIA	5,8	5,2	5,0	7,0	4,4	6,5	11,0	5,9
NORVEGIA	2,4	5,8	4,7	9,5	4,5	8,3	4,2	3,1
SUEDIA	0,5	3,1	2,4	7,0	4,1	4,2	3,1	1,8
DANIMARKA	—	—	2,1	3,9	2,2	2,8	3,2	1,7
AUSTRIA-HUNGARIA	—	—	0,3	1,1	1,6	4,8	6,1	1,4
ALEMANIA	—	—	1,5	2,9	1,0	0,5	0,4	1,0
FRANTZIA	0,1	0,2	0,2	0,3	0,1	0,1	0,2	
ITALIA	—	—	1,1	3,4	5,0	10,8	16,3	3,4
ESPAINIA	—	—		3,6	4,4	7,0	10,6	6,3
PORTUGAL	—	1,9	2,9	3,8	5,1	5,7	13,0	3,2

Iturriak: Ferenczi eta Willcox (1929)^[5], Sánchez Alonso (1995)^[6]



HISTORIA



Gerrarteko aldian –geldialdiak, inflazioak eta desoreka ekonomikoek ezaugarritutako garaia–, mantsotu egin ziren migrazio-mugimendu transatlantikoak. Garbiketa etnikoko eta erlijioagatiko jazarpeneko prozesuek, esate baterako Errusia tsaristako pogromek, biztanle talde zabalen lekualdaketa eragin zuten. 1929ko kolapso ekonomikoak eta 1930eko hamarkadako krisiak nabarmen geldiarazi zuten ozeanoz haraindiko immigrazioa. Nahiz eta immigrazio arloan lege falta izan, Estatu Batuetako langabezia bat-batean % 20 baino tasa altuagoetara iritsi izanak aro berri bat ireki zuen, zeinetan gogortu egin ziren mugak eta deportazioak. Kaltetu nagusiak langile mexikarrak izan ziren, gutxien kualifikatutako lanak egiteaz gain, Estatu Batuetatik alde egitera behartu baitzituzten, kasu askotan seme-alabekin batera, nahiz eta haiek lur estatubatuarretan jaiotakoak izan. Kalkulatzen da 1929 eta 1939 artean 469.000 mexikar itzuli zirela euren jatorrizko herrialdera, euren borondatez edo behartuta. XIX. mendeko migrazioerik jendetsuena Europako ozeanoz haraindikoa izan bazen ere, beste biztanleria-mugimendu garrantzitsu batzuk ere gertatu ziren. Nabarmentzekoak dira, batetik, Errusiaren barneko migrazioak, 1861ean joputasuna abolitu ostean Siberiara egindakoak; eta, bestetik, Europako herrialdeen arteko lekualdatzeak. Eskualde atzeratuen eta urbanizazio-prozesu azkartu batean sartutako hirien arteko desoreka territorialak handitu egin zituen Ingalaterrarako eta Europa erdialderako migrazio-fluxuak. Amerikarako itsasontzia hartzen ez zuten irlandar asko Ingalaterra joan ziren, italiarrak Frantziara, eta poloniarrek Alemaniako lurraldeetara.





**1929ko kolapso ekonomikoak eta
1930eko hamarkadako krisiak
nabarmen geldiarazi zuten ozeanoz
haraindiko immigrazioa. Nahiz eta
immigrazio arloan lege falta izan,
Estatu Batuetako langabezia bat-
batean % 20 baino tasa altuagoetara
iritsi izanak aro berri bat ireki
zuen, zeinetan gogortu egin ziren
mugak eta deportazioak**

II. Mundu Gerran, arrazoi ekonomikoengati-ko migrazioak bigarren planoan gelditu ziren, eta deportazioek eta errefuxiatuen exodo masiboek milaka pertsona mugiarazi zituzten; asko ez ziren beren jatorrizko lurraldeetara itzuliko. Gatazka amaitu ostean, gatazkan demografikoki kaltetuak izan baina ekonomia azkar suspertu zuten herrialdeetako eskulan falta konpontzeko helburuz, migrazio politikak sustatu ziren. Gatazkaren ondorioz suntsitutako hirien berreraikuntzak eta metropoli zaharren suspertze ekonomikoak migratzaileak erakarri zuten 1945 eta 1974 artean. Europa hegoalde-
tik eta Afrikatik abiatutako hamabost milioi langile inguruk –haien artean nagusi ziren italiarrak, espainiarrak, portugaldarrak, marokoarrak, turkiarrak eta algeriarrak– Frantziara, Alemaniako Errepublika Federalera, Suitzara, Belgikara edota Austriara migratu zuten. Estatuek, biztanleen mugimenduak modu eraginkorren kontrolatu nahian, gobernu-erakundeak sortu zituzten immigranteen garraioaz arduratzen ziren agentzia pribatuak ordeztzeko. Nolanahi ere, langile gehienek turista-pasaportea baliatuz bidaiatzen zuten, eta modu irregularrean egiten zuten lan. Etxeak edo atariak garbitzea, mahatsa biltzea, konponketak egitea edota eraikuntzan lan egitea izan ziren aldi baterako lanbide ohikoenetako batzuk. Espainiako emigrazioaren kasuan, Frantziara modu iraunkorrean joandako langileen %24 baino ez zen modu erregularrean sartu, eta familien berrelkartzeen %70 modu irregularrean egin zen.

[...] argi ikusten da desplazamenduak, aspirazio indibidualei erantzutetik urrun, ekoizpen moduan izandako aldaketek eta goseteek determinatu zituztela, eta erabat derrigortuak izan zirela

Zentro inperialista osatzen duten herrialde guztiek ez zuten industrializazio-prozesua aldi berean hasi. Industrializazioaren arrakastaren kausa, batez ere, burgesia industrialaren eta zentro politikoaren interesek bat egin izana zen. Espainiako Estatuaren kasuan, Iraultza Industrialaren hastapena motela eta berantiarra izan zen, prozesua mantsotu zuten zenbait egiturazko faktore zirela-eta; hain izan zen motela, ezen “industrializazio-porrot (erlatibo)” terminoa ere erabili izan baita hura deskribatzeko. Inperio koloniarren desegiteari lotuta, XIX. mendean, kontraesanak areagotu ziren landa-erdigunearen –kapitalista baino gehiago lurjabe eta latifundioetan oinarritua zen– eta periferia industrializatuaren artean. Latifundista handien interesak eta interes industrialak, batez ere ehungintzako burgesia katalanarenak, ezberdinak ziren, nahiz eta bi blokeek bat egin zuten, zalantzarik egin gabe, langile-mugimenduak egonkortasun soziala arriskuan jartzen zuen momentuetan. Espainian, industrializatu zen lehen eskualdea Katalunia izan zen, eta ehungintzako industriak bultzatu zuen haren garapena; haren jarraian, Bizkaia, Gipuzkoako gune batzuk eta Asturiasko meatze-arroak zeuden. Lehen nukleo horiek finkatzearekin batera, lehen trenbideak eraiki eta nekazaritza-erreforma liberalak gauzatu ziren, zeinek nekazariak landa-eremuetatik kanporatu baitzituzten.

Euskal Herriaren kasuan, industrializazio-prozesua tren eta lurrun bidezko garraioari zegokion batez ere, minerala eta langileak azkar garraiatzea ahalbidetzen baitzuten, eta, hala, altzairuaren ekoizpenaren kostuak merkatzen baitziren. Bilbo eta itsasadarraren ertzeko eremuak eredu industrial tipiko batenak dira. XIX. mendeko lehen herenean lehen ekoizpen-egitura industrialak eta lehendabiziko bankuak finkatu izanaren, eta, aldi berean, altzairuaren ekoizpena merkea izatearen eraginez, atzerriko, Espainiako eta Bilboko kapitalen kontzentrazioa handitu zen. Ondoren, azkartu egin zen hazkunde demografikoa: 1876tik aurrera, Triano-Muskiz tarteko meatze-ustiapenen handitze intentsiboaren eraginez, eta, 1880tik aurrera, siderurgiari eta metalgintzari lotutako fabrika eta tailerren finkapenaren ondorioz. Urte horietan, Bizkaiko biztanleria 168.659 biztanlekoa izatetik 485.205ekoa izatera igaro zen, eta Bilboko itsasadarrekoa, 44.681 biztanletik 304.365era; %187,7ko eta %581,2ko hazkundea izan zuten, hurrenez hurren^[7]. Trapagako, Ortuellako, Zierbenako eta Muskizko meatze inguruetak erolden arabera –burdinaren meatzaritza-jarduerari lotutako ingurunea–, proletarioa eta migrantea zen batez ere gizarte-egitura. Antzeko zerbait gertatzen zen Bilbon; izan ere, 1900an biztanleen %77 zen immigrantea, eta Barakaldon eta Sestaon, 1890an, biztanleen %72,3k zuen jatorri migrantea. Datuek berretsi egiten dute migrazio-fluxuen pisua. Oro har, kualifikazio baxuko lanpostuak nagusitu ziren, aldi baterakoak eta prekarioak, bereziki baldintza eskasak zituztenak eta, meatze-inguruko barrakoen kasuan, fabrika-inguruneetako langileenak baino dezente okerragoak. XIX. mende bukaerara arte, meatzari batzuek Gaztelan igarotzen zuten urtearen zati bat, landan jornalari jardunez, eta, urtearen gainerakoan, Bizkaiko meatzeetan lan egiten.



XX. mendean, aldaketa garrantzitsuak izan ziren migrazio-fluxuetan. Mendearen lehen hiru laurdenetan, nagusi izan ziren atzerriko migrazioa (Amerikarako mendearen lehen erdian, eta Europa Mendebaldeko herrialdeetarako migrazioa hirurogeiko eta hirurogeita hamarrekota hamarkadetan) eta Espainiako Estatuko gune industrializatuagoetarako migrazioa (Madril, Bartzelona eta Euskal Autonomia Erkidegoa); ordea, XX. mendeko azken hamarkadetan erabat murriztu zen atzerriko migrazio-fluxua, eta atzerriko immigrazioaren gorakada nabarmena gertatu zen; haren barnean sartzen zen jatorrizko herrietara itzultako emigranteen fenomeno eta hegoalde globaletik etorritako langileena.

Honakoak izan ziren XIX. eta XX. lekualdatze eta migrazioen kausak, bai estatuaren barrenekoe-nak eta bai ozeanoz haraindiko migrazioenak ere: ekoizpen-moduan gertatutako aldaketak, gainpopulazioa –metaketaren logiken berezkoa– eta Kapitalaren kontraesanak. Immigrazio askeari buruzko teoria liberalean, “Mundu Berrira”, hau da, ustezko aukeren lurraldera egindako bidaiaren ikuspegi epikoaren oinordekoa den aldetik, argi ikusten da desplazamenduak, aspirazio indibidualei erantzutetik urrun, ekoizpen moduan izandako aldaketek eta goseteek determinatu zituztela, eta erabat derrigortuak izan zirela. ●



ERREFERENTZIAK

- [1] Marx, K. *Kapitala*. XXIV. kapitulua. Hemendik eskuratua: <https://www.marxists.org/espanol/m e/1860s/eccx86s.htm>
- [2] Hobsbawm, E. (2011) *La era del capital, 1848-1875*. Editorial Crítica.
- [3] Lenin, V.I. (1975). El desarrollo del capitalismo en Rusia. El proceso de la formación del mercado interior para la gran industria. Hemendik eskuratua: <https://www.marxists.org/espanol/lenin/obras/1899/desarrollo/el desarrollo-del-capitalismo-en-rusia.pdf>
- [4] Datu estatistikoak hemendik eskuratua: https://uapas2.bunam.unam.mx/sociales/migraciones_europeas_causas/
- [5] Willcox, W. F (koord.) (1929) *International Migrations, Volume I: Statistics*. 1929.
- [6] Sánchez Alonso, B. (1995) “La emigración española a la Argentina. 1880-1930”. In Sánchez Albornoz, N. (koord.). *Españoles hacia América: la emigración en masa, 1880-1930*
- [7] Datu estatistikoak hemendik eskuratua: PALLOL TRIGUEROS, R., ABAD GARCÍA, R., *Inmigrantes en la Ciudad. Dinámicas demográficas, mercados de trabajo y desarrollo urbano de la España contemporánea*.

Argitalpena
2024KO URRIA
EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa
eta diseinua
**GEDAR LANGILE
KAZETA**

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER ETA
INSTAGRAM
@ARTEKA_GEDAR

Kontaktua
**HARREMANAK@
GEDAR.EUS**

Harpidetza
**GEDAR.EUS/
HARPIDETZA**

Edizioa
**ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA**
AZPEITIA

Lege gordailua
SS-01360-2019

ISSN
2792-4548

Lizentzia



arteka